



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 28a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, nafarroako Gobernua premiatzen da, lehenbailehen eta sei hilabete baino arinago, Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala aurkez dezan Parlamentuan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeari laguntza integrala emateko udal zentroa finantzatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmen sinatu dezan Tuterako Udalarekin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatu dezan Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrezan aurre egin ahal izateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuaren erregulazioa aldatu dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (21. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (22. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (25. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (26. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da eman beharreko xedapenak eman ditzan Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua aplikatze aldera. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan. Mozioa erretiratzea (27. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez egokia den eliza katolikoari 40.000 euro ematea gure ondarea ikusten utz diezagun, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Nafarroan paratutako haize-energiako eremu esperimentalei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (29. or.).
- Galdera, gazte etorkinekin lan egiten duten elkarteei buruz onetsitako erabakiaren betetze mailari. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuako Eledunaren Batzordean izapidetzea (30. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzea. Lan-taldea bukatu da (31. or.).
- Lan-taldea, NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzea. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak buruzko arauak (31. or.).
- Parlamentuaren Erregelamendua aldatzeko lan-talde bat sortzeko erabakia. Erregelamendu Batzordeak onetsia (32. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 4/2010 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (33. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2010eko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126, 151.1 eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea, Erregelamenduko 151 eta 152. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioari Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko ekainaren 21eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Konstituzio Auzitegiaren Bigarren Salako 2009ko ekainaren 1eko Epaiak, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak planteatutako konstituzionaltasun arazoak ebatzi zituenean, Nafarroako toki araubidea gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren zenbait tarteki konstituzioaren kontrakotzat jo zituen. Xedapen horren bidez Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko ohiz kanpoko prozesua garatzeko baimena eman zen. Epai horren bidez, prozesu hartan modu murriztailean emandako gaikuntzak deuseztatu ziren eta gaitu berriei eskainitako plazak funtzionario araubidean betetzea ezinezko bihurtu zen.

Nafarroako toki administrazioetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak betetzeko gaur egun indarra duen sistema arrunta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluan jasota dago. Horko zenbait determinazio bateraezinak dira Nafarroako toki araubidea gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen ezarritakoekin. Hori ikusita, beharrezkoa litzateke legeko araudi bat onestea, Nafarroako Toki Administrazioan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzeko erreserbatutako lanpostuak bete eta bertan sartzeko sistemaren normalizazioa bermatzeko.

Araudi berria egiteko, lehenbizi, indarreko sistemaren gabezia eta mugak identifikatu behar izan dira, normalizazioa lortuko bada, sistema hori bideraezina eta eutsiezina delako. Gabezia horiek, besteak beste, hauek dira: langile gaituen araubide juridikorik ez dago, Nafarroako toki administrazioaren balizko berrentolaketa administratibo eta

funtzionalarekin bateragarriak lirakeen atalase batzuk ezarri beharko lirake, denbora-mugarrien zorrotasuna ezarritako prozeduraren ziltasunarekin bateraezina da eta, azkenik, toki entitateekiko gehiegizko mendekotasuna dago hutsik dauden lanpostuak eta horiek betetzeko berariazko balorazio irizpideak finkatzeko orduan, eta hori bateraezina da lanpostuak betetzeko lehiaketa bateratuen egonkortasun eta segurtasunarekin.

Indarreko araudiaren eta lehen adierazitako gabezia horien arteko bateraezintasuna gainditu nahian, prestatu den araudiaren proiektuak behar horiei erantzuna eman nahi die, baina Nafarroako Toki Administrazioaren errealitate soziala alde batera utzi gabe, ez eta aurrekari administratibo eta judzialak ere, garbi utzi baitute beharrezkoa dela sistemari ahalik eta segurtasun juridikorik handiena ematea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluaren egitura nabarmen aldatuz, artikuluetan finkatzen da, Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langile guztien araudi generikoaz gainera, araudi berariazkoago eta berezituago bat, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizun publiko beharrezkoetan aritzeko erreserbatutako lanpostuei dagokiena, izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lanpostu horietarako gaikuntza eman beharrak langile horien araubide juridikoaren eta lanpostu horiek betetzeko sistemaren eguneratzea dakar, hori guztia determinazio hauetan oinarritua:

– Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak, aurreko araudiaren arabera aldaketarik gabe sailkatuta daudenak, dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eman beharreko gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden bakarrak, eta hori berresten da.

– Beharrezkoak diren eginkizun publikoak finkatzen dira, baita lanpostu bakoitzari dagozkionak ere, eta lehenbiziko aldiz, gaikuntza duten toki funtzionarioen berariazko araubide juridikoa eratzen da. Funtzionario horiek bateraezintasun araubidean arituko dira.

– Beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzeko erreserbatuta dauden lanpostuak noiz diren aginduzkoak eta noiz borondatezkoak finkatzen da eta lanpostu hutsak funtzionario araubidean betetzeko beharrezkoak diren atalase batzuk ezartzen, biztanle kopuruaren eta aurrekontuaren araberrakoak, parlamentuaren erabakiaren bidez aldatzen ez diren bitartean.

– Toki administrazioaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako departamentuari

esleitzen zaio idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak funtzionario araubidean bete behar dituzten langileak hautatu eta izendatzeko erantzukizuna, kasuan kasuko plantilla organikoan ezartzen diren determinazioen arabera.

– Idazkari eta kontu-hartzaile izaera behin betikoz hartzeko ezinbesteko baldintza izanen da, aurretik, gaikuntza lortzea txanda irekian, dela oposizio bidez, dela oposizio-lehiaketa bidez, lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizunaren arabera, baina gaikuntzen kopurua ezin izanen da izan aurretik egin beharreko lehiaketetan hutsik gelditzen diren lanpostuen kopurua baino handiagoa.

– Hutsik dauden idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko, funtzionario gaituen arteko merezimendu lehiaketa bateratuak egiten segituko dira, lehentasunezko hautapen sistema bidez, baremo bakarra aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, hizkuntza arloan indarra duen araudia aplikatuz. Merezimendu lehiaketa horiek egiteko gehieneko maiztasuna ere finkatzen da.

– Idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak betetzeko araubide berezi bakarra Iruñeko Udalari aitortu zitzaiona dela berresten da eta araubide hori eguneratzen. Aitortza hori Toki Administrazioari buruzko foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriaren bidez eman zitzaion.

– Toki entitateek idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuen ezaugarriari buruzko informazioa eman beharra ezartzen da, lanpostuetan sartu eta betetzeko deialdiak zuzen ebatzi ahal izateko.

Era berean, Nafarroako toki entitateetako agintaritzako eta diruzaintzako eginkizun publikoetan aritzeko arauak ematearekin batera, proiektu araugilean denbora luzamendu bat ezartzen da Nafarroako Gobernuak udalen batasunak ezartzeko, erreserbatuta dauden idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuak funtzionario araubidean betetzeko indarra duten atalaseak gainditzeko elkartu ez diren udalekin. Orobat, araubide iragankor bat ezartzen da arauzko aurreikuspen batzuetarako, lanpostu horiek betetzeko sistema berria normalizatzea baldintzatzen duten indarreko arauak indargabetzen dira eta toki administrazioan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen gaineko aurreikuspenen erregelamenduzko garapena egiteko ahalmena esleitzen da.

Aipamen berezia merezi du hirugarren xedapen iragankorrean jasotako aurreikuspenak, horren bidez behar den segurtasun juridikoa eman nahi baitzaio foru lege honetako irizpideen arabera idazkari lanpostuak betetzeko deitzen den lehenengo prozesuari.

I. KAPITULUA

Xedapen komunak

233. artikulua. Langile motak. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langile-ria funtzionario publikoek, behin-behineko langile-ek eta kontratupeko langileek (finkoek edo aldi baterakoek) osatzen dute.

2. Ez dute Nafarroako toki entitateetako langile-en izaera izanzen Korporazioko kidea izateagatik eginkizun batzuk egitea edo zerbitzu batzuk ematea esleitu dutenek, ez eta horrelakoak errentamendu-harreman baten bidez egiten dituztenek ere.

3. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langile-en araubidea, lege honetan aurreikusitakoa ez dagoen orotan, Nafarroako Administrazio Publiko-en Zerbitzuko Langileen Estatutuan xedatutakoa izan da.

234. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoen azalpena eta horietan aritzea.

1. Nafarroako toki entitate guztietan beharrezkoak diren eginkizun publikoak hauek dira:

a) Idazkaritza lanak, fede publikoa eta aginduzko lege-aholkularitza barne direla.

b) Kontu-hartzailletza lanak, barneko kontrol eta fiskalizazioa, ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa eta, azkenik, kontabilitatea barne direla.

c) Diruzaintza lanak, funtsak erabili eta gordezea eta dirua biltzea barne direla.

Oro har, idazkaritzako eta kontu-hartzailletzako eginkizun publikoetan aritzea Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta egonen da bakar-bakarrik. Diruzaintzako eta aginteko eginkizunak, berriz, foru lege honetan ezarritako determinazioen arabera gauzatzen ahalko dira.

Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan ezarritako kasuetan izan ezik, ezinezkoa izan da idazkaritzako, kontu-hartzailletzako eta diruzaintzako eginkizun publikoetan aldi berean aritzea berariazko lanpostua duten toki entitate batean baino gehiagotan.

2. Aurreko zenbakian adierazitako eginkizun publikoak honako hauen ardua izan da:

a) Toki korporazioetan, berariazko lanpostua duten mankomunitateetan eta eginkizun horiek egiteko sortutako batasunetan, kasuan kasuko entitateko langileak.

b) Kontzejuetan, eginkizun horiek batzarreko edo kontzeju irekiko kideek eginen dituzte, organo horien gaikuntza badute. Langile gaitu horiek kargutik libreki kentzen ahalko dira.

c) Tradiziozko toki batasunetan tokian tokiko erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan xedatzen denari jarraikiz eginen dira.

d) Berariazko lanposturik ez duten mankomunitateetan, 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatutako eginkizunak, toki entitate elkartuetako batean eginkizun horietan aritzen direnei esleitzen ahalko zaizkie, hala eskatuz gero, edo eskaerarik ez bada, nahitaez, txandaka. Horrelakoetan, mankomunitateak zehaztuko duen ordainsaria jasoko du, betiere eginkizuna hartzen duen langileak aitortua duen mailari dagokion hasierako soldataren ehuneko hamar gutxienez.

3. Aurrekoa gorabehera, titularra kanpoan, gairorik edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duen beste administrazio egoera batean badago, eta orobat, lanpostua behin betiko betetzeko arau-eragozpen bat badago, edo funtzionario batek betetzeko deitutako lanpostu hutsa aldi baterako bete behar bada, idazkaritzako eta kontu-hartzailletzako eginkizun publikoetan honako hauek aritzen ahalko dira:

a) Entitateko plantillako langile finko bat, lanpostu horretan aritzeko behar den titulazioa badu eta entitateak horretarako gaikuntza halaber behar eman badio, edo deialdi baten bidez hautatutako pertsona bat, administrazio araubidean aldi baterako kontratatua.

b) Behar den foru gaikuntza duen funtzionario bat, beste toki entitate batean aritzen dena, behar bezala frogatzen bada ezinezkoa izan dela lanpostu horiek aldi baterako betetzea aurreko idatz-zatitan aurreikusitako aukeren bidez, edo betetzeko tramitazioak iraun bitarte. Horretarako, lehenago, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio eta ukitutako toki entitateen baimena lortu beharko da.

235. artikulua. Plantilla organikoak.

1. Toki entitate bakoitzak bere plantilla organikoan adierazi beharko ditu plazen eta lanpostuen ezaugarriak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuz kontuan hartzen direnak barne. Langile horiek hartzeko prozedurak ezaugarri horietara egokituko dira.

2. Toki korporazioetako plantilla organikoak urtero onetsi beharko dira, aurrekontua onestearikin batera. Onesteko eta hura indarra dagoen

bitartean aldatzeko, aurrekontuetarako ezarritako tramiteak bete beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere barne.

3. Entitateen elkarketa bat edo hitzarmen bat egoteagatik, toki entitate batean baino gehiagotan aritzen diren langileak badaude, langile horiek plantilla organiko bakar batean agertuko dira, organikoki menpean dituen entitaterenean hain zuzen, eta horren aipamena egin beharko da lanean ari diren gainerako entitateetako plantilla organikoetan.

4. Toki korporazioek plantillaren kopia bat igorriko diote Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, behin betiko onetsi eta hilabete bateko epean. Horrekin batera, lanpostuen zerrenda ere igorriko da, bakoitzean ari diren langileak aipatuz.

236. artikulua. Langileen hautaketa

1. Toki entitate bakoitzari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza behar duten langileentzat erreserbatuta ez dauden lanpostuak beteko dituzten langileak hautatzea.

2. Nafarroako Gobernuaren barrenean toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak beteko dituzten langileak hautatu eta izendatzea. Hala ere, lanpostu horiek toki entitate bakoitzeko plantillakotzat hartuko dira.

3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren eginkizunen artean toki entitateetako langileen prestakuntza egonen da. Hala ere, toki entitateek eta entitateen batasunek erakunde horrekin hitzarmenak sinatzen ahalko dituzte, prestakuntza jarduerak elkarrekin egiteko.

237. artikulua. Ordainsariak.

Toki entitateen zerbitzuko langileek, foru lege honetan ezarritako berezitasunekin, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako kontzeptuengatik finkatutako zenbatekoak jasoko dituzte ordainsari gisa ez besterik. Horiek entitate bakoitzeko plantilla organikoan aipatu eta zehaztuko dira.

Hortaz, ezin izanen dute inolako funtsen banaketan parte hartu, eta ezin izanen dute arau horietan aipatutakoez kanpo beste ordainsaririk jaso.

II. KAPITULUA

Beharrezkoak diren eginkizun publikoen mugapena eta foru gaikuntza behar duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuena

Lehenengo atala

Beharrezkoak diren eginkizun publikoak

238. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen erantzukizuna.

1. Oro har, atal honetan zerrendatzen diren idazkaritzako, kontu-hartzaitzako eta diruzaintzako eginkizun publiko beharrezko bakoitzaren administrazio erantzukizuna duenak lan horiek egiteaz arduratzen diren zerbitzuen zuzendaritza izanen du esleitua, deusetan galarazi gabe toki korporazioko gobernu organoen eskudantziak, bakoitzak antolatzeke duen ahalmena erabiliz.

2. Toki entitateek behar beste neurri (antolamendukoak, pertsonalak eta materialak) hartuko dituzte beharrezkoak diren eginkizun publikoetan eta eginkizun osagarrietan aritzeko erreserbatuta dauden lanpostuetako titularrei bermatzeko beren eginbeharrak askatasun, objektibotasun eta inpartzialtasun osoz beteko dituztela.

239. artikulua. Fede publikoa emateko eginkizunaren barruan, lan hauek daude:

a) Osoko bilkuraren, gobernu batzorde erabakitzailearen edo entitate lotesten duten erabakiak hartzen dituen korporazioko kide anitzeko beste edozein organoren bileretako gai zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, alkateak edo korporazioko buruak ezarritakoarekin bat, eta horri laguntzea deialdia egiten, eta kide anitzeko organoko kide guztiei garaiz jakinaraztea.

b) Deialdia egiten denetik, gai zerrendan sartzen diren espedienteetako dokumentazio osoa zaintzea eta kide anitzeko organoko kideen eskuraztea, aztertu nahi badute.

c) Artikulu honetako a) letran aipatutako kide anitzeko organoen bilkuren akta egitea eta, bilkura bakoitza hasi aurretik, aurrekoaren akta onesteko bidean jartzea. Akta onetsi ondoren, akten liburu baimenduan transkribatuko da, idazkariak sinatu eta alkateak edo korporazioko buruak ontzat eman ondoren.

d) Lehendakaritzako ebazpenen liburuan transkribatzea lehendakariak eta korporazioko kideek, hark eskuordeturik, ematen dituzten ebazpenak.

e) Lehendakaritzaren egintza edo ebazpen guztiak ziurtatzea eta, orobat, erabakitzeko ahalmena duten kide anitzeko organoen erabakiak,

hala nola entitatearen aurrekari, liburu eta dokumentuak.

f) Estatuko Administrazioa eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa igortzea, erregulaziorik ezartzen den moduan eta epeetan, korporazioko pertsona bakarreko edo kide anitzeko organo erabakitzaileen egintzen eta erabakien kopia edo, hala badagokio, laburpena.

g) Espedienteetan anotatzea, sinadura jarriz, hartzen diren ebazpenak eta erabakiak.

h) Entitateak parte hartzen duen lizitazio, kontratu eta antzeko agiri administratibo guztien aktak baimentzea, atxikita dituen berme eta erantzukizunekin.

i) Aginduzkoak diren iragarkiak publizitate-bide ofizialetan eta entitatearen iragarki oholean argitaratu daitezela xedatzea eta horren emaitza ziurtatzea, behar izanez gero.

j) Korporazioko kideen Interesen Erregistroaz eta Entitatearen Ondasunen Inbentarioaz arduratzea eta haiek zaintzea.

k) Entitatearen artxibo eta erregistroen goi zuzendaritza.

239. artikulua (bis). Aginduzko lege aholkularitza eginkizunaren barruan, lan hauek daude:

a) Aurretiko txostenak prestatzea, korporazioko buruak aginduz gero edo zinegotzien heren batek eskatuz gero kasuan kasuko gaia jorratuko den bilkura egin baino zortzi egun lehenago. Txosten horietan kasu bakoitzean aplikagarria den legedia adierazi beharko da eta proiektu fasean dauden erabakiak legearen araberrak ote diren.

b) Aurretiko txostena prestatzea, onesteko gehiengo berezi bat eskatzen duen gai bat jorratzen den bakoitzean. Horrelakoetan, zerbitzuko edo bulegoko beste buruek edo beste aholkulari juridiko batzuek txostena egin badute, aski izanen da harekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko oharra egitea. Kasu horretan, oharraren sinatzaileak txostenaren erantzukizuna hartuko du bere gain.

c) Aurretiko txostenak egitea, berriazko lege agindu batek hala eskatzen badu.

d) Parte hartzen duen kide anitzeko organoetako bilkuretan eta organoko buruaren berriazko errekerimendua dagoen guztietan, eztabaidatzen den gaiaren gaineko legezko alderdiei buruzko txostena egitea, hartu beharreko erabakiaren zuzentasun juridikoa helburu. Eztabaidan gairen baten legezotasunaren gainean zalantzarik sor-

tzen baldin bada, hitz egiteko baimena eskatzen ahalko dio buruari korporazioari aholku emateko.

e) Korporazioko buruari edo kideei eskriturak sinatzeko ekitaldietan laguntzea eta, hala eskatuz gero, baita agintariei egiten dizkieten bisitetan edo bileretan ere, lege arloko aholkularitza emateko.

f) Korporazioko buruari aurrekontua prestatzen laguntzea, kontu-hartzailearekin batera.

g) Toki entitatearen zerbitzu juridikoak koordinatzea.

h) Udalerrian dauden kontzejuetako buruek eskatzen dizkieten aholkularitza eta laguntza lanak.

240. artikulua. Barneko fiskalizazioko eta kontrolko eginkizunak lan hauek hartzen ditu eginkizun bakoitzerako: kontu-hartzailetzan, finantza kontrolan eta eragikortasunaren kontrolan:

1. Kontu-hartzailetzako eginkizunaren helburuak hauek dira:

a) Toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen egintza guztiak fiskalizatzea, eskubide eta obligazioen aitortpena eta likidazioa edo gastu ekonomikoak badakartzate, baita haietatik datozen kobraketa eta ordainketak ere, eta, orobat, administratutako diru publiko guztien aplikazioa, inbertsioa eta diru-bilketa egitea, oro har, kudeaketa kasuan-kasuan aplikatu beharreko xedapenetara egokitu dadin. Eginkizun horren barrenean, lan hauek daude:

– Eskubide edo obligazio ekonomikoak eta funtsen edo baloreen mugimenduak sor ditzaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartzailetza kritikoa edo aurretikoa egitea.

– Ordainketa aginduen kontu-hartzailetza formala.

– Ordainketaren kontu-hartzailetza materiala.

– Inbertsioen eta diru-laguntzen aplikazioaren kontu-hartzailetza eta egiaztapen materiala.

b) Egindako ohartarazpenen kontra toki entitateko buruak hartutako ebazpen guztien gaineko txostena egitea eta osoko bilkurari igortzea, hala nola diru-sarrearen arloan atzemandako anomalia nagusien laburpen bat.

c) Kreditu aski izan gabe, baimentzen diren gastuak edo aitortu, likidatu edo ordaintzen diren obligazioak bidegabeak direla ohartaraztea idatziz, bestela haien gaineko erantzukizun pertsonala izanen du eta.

d) 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, aurretiko txostena egitea, buruak proposaturik,

entitateak erabaki dezan aurretiko kontu-hartzaile-tza lana alderdi hauek egiaztatzea muga dadila:

– Aurrekontuetan kreditu aski ote dagoen eta proposatzen den kreditua egin edo hartu nahi den gastu edo obligaziorako egokia den, eta urte anitzeko gastu konpromisoak hartuz gero, agindutakoa betetzen den.

– Gastuak edo obligazioak organo eskudun batek proposatzen ote dituen.

– Kudeaketa prozesuan duten eragina dela-eta, osoko bilkurak zehazten dituen beste alderdi batzuk.

Kontu-hartzailetzako organoak egoki iruditzen zaizkion ohar osagarriak egiten ahalko ditu, baina horiek ez dute inola ere eteko kasuko espedienteen tramitazioa.

e) Obrak hartzeko ekitaldietara joatea entitateko buruarekin edo horren eskuordetza duen kidearekin, entitateko idazkariarekin, obra zuzendaritzaren arduradunarekin eta kontratistarekin batera. Azken horrek, hala nahi izanez gero, bere fakultati-boa eraman dezake.

2. Finantza kontroleko eginkizunaren helburuak hauek dira:

a) Toki entitateetako zerbitzuen, haien erakunde autonomoen eta haien menpeko merkataritza sozietateen alderdi ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua egiaztatzea.

b) Finantza arloko informazioaren aurkezpena egokia ote den, aplikagarri diren arau eta jarraibideak betetzen ote diren eta aurreikusitako helburuen eragimen maila epaitzea.

c) Egindako azterketaren ondorioz ateratzen diren ohar eta helburu guztiak azaltzen dituen idatzizko txostena egitea. Txostenak, auditoriaren xede izan den organoaren alegazioekin batera, osoko bilkurari bidaliko zaizkio, azter ditzan.

3. Eraginkortasunaren kontroleko eginkizunaren helburua da, aldian behin, helburuak noraino bete diren egiaztatzea, hala nola zerbitzuen edo inbertsioen errendimenduaren eta funtzionamenduaren kostuaren azterketa egitea.

240. artikulua (bis). Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko kudeaketa eta aholkularitza eginkizunaren barruan lan hauek daude:

a) Entitateko buruari toki entitatearen aurrekontua prestatzen laguntzea, idazkariarekin batera.

b) Ekonomia eta finantza txosten bat prestatzea, entitatearen aurrekontuari buruzko informazio osagarria izan dena. Txosten horretan hona-

ko hauek azalduko dira: batetik, aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluazioa egiteko erabilitako oinarriak, eta bestetik, kredituak aski ote diren eskatzen zaizkion betebeharrak eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko eta, horrenbestez, aurrekontua benetan berdintzeko. Kreditu eragiketei dagokienez, haien zenbatekoaz gainera, hitzartu asmo diren ezaugarri eta baldintza finantzario guztien xehetasunak adieraziko dira, eta bereziki aipatuko da entitateak duen finantza karga, hura formalizatu aurretik eta ondortik.

c) Idazkariarekin batera, aurrekontu orokorren proiektuari buruzko aurretiko laburpen txostena prestatzea, entitateko buruak korporazioaren osoko bilkurari azaroaren lehena baino lehen bidaltzeko, horrek onetsi, zuzendu edo itzul dezan.

d) Exekuzio oinarrien aurretiko txostena prestatzea, gastuen aurrekontuen kargura egiten diren kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketa aginduak emateko arauak buruz. Bertan zehaztuko dira irizpide orokorrak, muga kuantitati-boa eta zein aurrekontu-kontzepturi aplikatu behar zaizkien.

e) Aurrekontuetako kredituen aldaketa guztiei buruzko txostena egitea, nahitaez.

f) Mota guztietako kreditu-eragiketak hitzartze-ko aurretiko txostena prestatzea, non toki entitateak eragiketa horien ondoriozko betebeharrak denboran aurre egiteko duen gaitasuna aztertuko baita bereziki. Toki entitatearen menpeko erakunde autonomoek kreditu-eragiketak hitzartu aurretik ere, txostena prestatu beharko da.

g) Aurreragoko ekitaldiei egotzi beharreko gastuak baimendu aurretik txostena prestatzea, baimendu beharreko urte anitzeko gastuaren ondorio ekonomiko-finantzarioei buruz eta, hala badagokio, gastu horien eta inbertsio planen eta finantzaketa programen arteko korrelazioari buruz.

h) Toki entitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa toki entitateko buruak onetsi aurretik, aginduzko txostena prestatzea.

i) Gastuen murrizketa ezeztatu aurretik txostena prestatzea, aurrekontua likidatzean diruzaintzako geldikin negatiboa baldin badago.

j) Toki entitateko buruak edo zinegotzien heren batek eskaturik, edo lege gehiengo berezi bat behar duten gaiak jorratu behar direnetan, ekonomiaren, finantzen edo aurrekontuen gaineko txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea.

k) Irizpena ematea zerbitzu berriak sortzeari edo daudenak berritzeari buruz, aurkezten diren proposamenen ondorio ekonomiko-finantzarioak ebaluatzeko. Eztabaidan gairen baten aurrekontu-ondorioen gainean zalantzarik sortzen baldin bada, hitz egiteko baimena eskatzen ahalko dio entitateko buruari, korporazioari aholku emateko.

l) Aurretiko txostena prestatzea, herri ekimen baten bidez, udalaren eskumenekoak diren gai buruzko erabaki edo jarduketan proposamenak edo xedapen orokorren proiektuak aurkezten direnean, eskubide edo betebeharrak ekonomikoetan ondorioz badute.

240. artikulua (ter). Kontabilitateko eginkizunak lan hauek hartzen ditu:

a) Aurrekontuaren exekuzioaren segimendua eta kontabilitatea eraman eta garatzea, arau orokorrei eta korporazioko osoko bilkurak ematen dituen arauak jarraikiz.

b) Toki entitatearen menpeko erakunde autonomoen eta merkataritza-sozietateen kontabilitatea kontrolatu eta gainbegiratzea, osoko bilkurak ezartzen dituen prozedurekin bat.

c) Toki entitateko osoko bilkurari, entitateko buruaren bidez, aurrekontuen betearazpenaren gaineko informazioa igortzea, baita osoko bilkurak kontabilitatearen gainean eskatzen duen gainerako informazioa ere, hark eskatzen dituen epeak eta maiztasuna betez.

d) Kontu orokorrak egin edo prestatzea.

241. artikulua. Diruzaintzako eginkizunak.

1. Diruzaintzako eginkizunen barrenean dago toki entitatearen funts, balore eta efektuak erabili eta zaintzea, indarreko legezko xedapenek eta dirubilketa zerbitzuko buruek ezartzen duten arauak jarraikiz.

2. Funts, balore eta efektuak erabili eta zaintzeko berarekin dakar:

a) Entitatearen funts eta baloreei dagozkien kibraketa eta ordainketak egitea, indarreko lege xedapenetan ezarritakoari jarraikiz.

b) Funtsak, baloreak eta efektuak nola zaindu behar diren antolatzea, entitateko buruak ematen dituen jarraibideekin bat.

c) Korporazioak ematen dituen jarraibideekin bat, bankuetan, Gordailu Kutxa Orokorrean eta antzeko establezimenduetan kontsignazioak egitea eta establezimendu horietan irekitako kontuen kontra igortzen diren txeki eta gainerako ordainketa aginduak baimentzea, ordainketen agintzaileekin eta kontu-hartzaileekin batera.

d) Diruzaintzako plan eta programak prestatzea, entitatearen diru-baliabideak denboran banatuz, bere betebeharrak egoki betetzeko, lege ezarritako lehentasunei erantzunez, korporazioak ezartzen dituen jarraibideekin bat.

3. Dirubilketa zerbitzuko burutzak lan hauek hartzen ditu:

a) Dirubilketa prozedurak sustatu eta zuzentzea, eta kibraketak ezarrita dauden epeetan egiteko beharrezkoak diren neurriak proposatzea.

b) Dirubiltzaileei eta derrigorrezko dirubilketako agenteei ematen zaizkien baloreen kargu-orriak baimentzea.

c) Premiamenduko administrazio espedienteetan premiamendu probidentzia diktatzea eta bahitutako ondasunen enkantea egiteko baimena ematea.

d) Baloreen galeraren ondoriozko erantzukizunaren espedienteak tramitatzea.

Bigarren atala

Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak

242. artikulua. Erreserbatutako lanpostuak.

Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak dira idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizunen administrazio erantzukizuna esleitua dutenak, foru lege honetan finkatzen den moduan eta baldintzetan. Eginkizun horiek foru lege honen 234. artikuluko 1. puntuko a) eta b) idatz-zatietan ezarrita daude.

Lehenengo azpiatala Idazkari lanpostua

243. artikulua. Idazkari lanpostua.

1. Nafarroako toki korporazio guztietan, kontzejuetan izan ezik, idazkari lanpostua izanen da, berea edo partekatua. Idazkariari fede publikoa eta aginduzko lege aholkularitza emateko eginkizunen administrazio erantzukizuna dagokio, foru lege honen 239. eta 239. (bis) artikuluetan adierazi bezala. Tradiziozko toki batasunek eta mankomunitateek lanpostu hori sortzeko ahalmena izanen dute.

2. Karguari berez dagozkion eginkizunak gainera, idazkariari kontu-hartzailetzako eginkizunak ere dagozkio, 247. artikuluan ezarritakoaren arabera kontu-hartzailearen lanposturik ez duten toki korporazioetan, eta orobat, korporazioaren bulego eta zerbitzuak antolatu eta zuzentzeko eginkizunak.

nak, kudeatzaile lanak egiten dituen A mailako beste pertsona bati esleitu ez bazaizkio.

3. Idazkariordearen lanpostua 25.000 biztanletik gorako udaletan sortzen ahalko da bakarrik, eta idazkarien lanpostuentzat ezarritako araei lotuko zaie.

Bigarren azpiatala Kontu-hartzaile lanpostua

244. artikulua. Kontu-hartzaile lanpostua.

1. Kontu-hartzaile lanpostuak foru lege honen 240., 240. (bis) eta 240. (ter) artikuluetan adierazitako eginkizunen administrazio erantzukizuna izanen du esleitua.

Kontu-hartzaile lanpostuari berez dagozkion eginkizunez gain, diruzaintza lanak ere egin beharko ditu, diruzainaren lanposturik ez duten korporazioetan.

2. Kontu-hartzailearen lanpostua honako entitate hauetan izanen da nahitatezkoa:

a) 3.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako udaletan.

b) Kontu-hartzaile lanpostu bakar bat elkarrekin sostengatzeko batasunetan, biztanle guztien batzura 2.000tik gorakoa bada.

3. Kontu-hartzaile lanpostua sortzeko ahalmena dutenak hauek dira:

a) 2.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak, eta hortik beherako biztanleria dutenak ere bai, azkeneko 3 urteetan 1.500.000 €-tik gorako urteko gastu arrunta izan baldin badute.

b) Tradiziozko toki batasunak eta mankomunitateak.

c) Kontu-hartzaile lanpostu bakar bat elkarrekin sostengatzeko batasunak, idazkari lanpostua ere partekatzen badute.

244. artikulua. (bis). Kontu-hartzaileen lanpostuen sailkapena.

1.- Kontu-hartzaileen lanpostuak honela sailkatzen dira:

a) "A mailako" kontu-hartzailea.- 10.000 biztanletik gorako udaletan edo udal batasunetan izanen da, baita eginkizun askotarako mankomunitateetan eta tradiziozko toki batasunetan ere, hala jasota baldin badago tokian tokiko plantilla organikoan.

b) "B mailako" kontu-hartzailea.- Nafarroako gainerako toki entitateetan, plantilla organikoan nahitaez edo borondatez lanpostu hori agertzen bada.

2.- Dena dela, biztanle kopuruaren bilakaeraren arabera edo toki entitateak borondatez hala erabakitzen duelako, entitateari duena baino maila altuagoko kontu-hartzaile bat baldin badagokio, lanpostu hori salbuetsita egonen da gerora etorritako sailkapenaren arabera gaikuntza duten langileekin bete beharretik, betiere sailkapen baxuagoa izanik lan horiek egiten dituen funtzionarioaren egoera pertsonalak irauten arte. Horrelakoetan, funtzionarioak eginkizun horietan segitzen ahalko du, baina daukan mailatik goragoko gaikuntzarik eskuratu gabe.

Hirugarren atala Hautapena eta lanpostuak betetzea

Lehenengo azpiatala Gaikuntza lortzea

245. artikulua. Gaikuntza lortzeko deialdiak.

1. Nafarroako toki entitateetako idazkariaren edo kontu-hartzailearen izaera eskuratzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza lortzea. Aurretik salbuetsita dago foru lege honetan Iruñeko Udalarentzat ezarrita dagoena.

2. Gaikuntza lortzeko aurretiko betebeharra izanen da oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez eginen den deialdia gainditzea, txanda irekian. Oposizio-lehiaketa eginez gero, oposizioaldia lehiaketaldiaren aurretik egiten ahalko da.

3. Deialdien oinarriak, programak eta merezimenduen baremoak Nafarroako Gobernuan toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak onetsiko ditu, toki administrazioaren ordezkarien parte-hartzearekin, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritako determinazioekin bat.

4. Gaikuntza lortzeko deialdietan, berariaz antolatuko diren prestakuntza ikastaroak gainditzea eska daiteke.

5. Deialdi bakoitzean eman beharreko gaikuntzen zenbatekoa ez da izanen lanpostuak betetzeko aurretiko lehiaketak ebatzi ondoren hutsik gelditzen diren lanpostuen kopurua baino handiagoa.

246. artikulua. Epaimahaiak.

Toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak hautapen probak kalifikatzeaz eta, hala behar bada, baremoak aplikatzeaz eta prestakuntza ikastaroak ebaluatzeaz arduratuko diren epaimahaiak izendatuko ditu. Epaimahaietan Nafarroako toki entitateen ordezkariak izanen dira, deialdietan ezartzen denaren arabera.

246. artikulua (bis). Gaikuntza probetan parte hartzeko betebeharrak.

1. Nafarroako toki entitateetako idazkari lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan parte hartzen ahalko dute, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean, ondorengo ikasketa tituluren bat dutela frogatzen dutenek edo, indarreko araudia aldatuz gero, hauen balio berekotzat jotzen diren tituluetakoren bat dutenek:

– Zuzenbideko lizentzia.

– Zientzia Politikoetako eta Administrazioaren Zientzietako lizentzia edo Soziologiako lizentzia edo Zientzia Politikoetako eta Soziologiako lizentzia.

2. Nafarroako toki entitateetako A mailako kontu-hartzaileen lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan parte hartzen ahalko dute, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean, ondorengo ikasketa tituluren edo, indarreko araudia aldatuz gero, hauen balio berekotzat jotzen diren tituluetakoren bat dutela egiaztatzen dutenek:

– Zuzenbideko lizentzia.

– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia.

– Ekonomiako lizentzia.

– Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetako lizentzia edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentzia.

3. Nafarroako toki entitateetako B mailako kontu-hartzaileen lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan parte hartzen ahalko dute, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den egunean, aurreko idatz-zatietan adierazitako ikasketa tituluren bat, Enpresa Zientzietako diploma edo, indarreko araudia aldatuz gero, horien balio berekotzat jotzen diren tituluetakoren bat dutela egiaztatzen dutenek.

246. artikulua (ter). Izendapena, lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

1. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, merezimenduen lehiaketan deialdietan betetzen ez direnak, 245. artikuluan aipatzen den gaikuntza lortzen dutenei esleituko zaizkie, betiere toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak aurretik izendatu ondoren, izangaiak lortutako puntuazioaren arabera eta lanpostu hutsen hiz-

kuntza eskakizunaren arabera, eta foru lege honen 250. artikuluan 2. puntuaren ezarritako irizpideei jarraikiz. Esleitzen diren lanpostuen jabetza hartzeko araubidea foru lege honen 252. artikuluan ezarritakoari egokituko zaio.

2. Nafarroako toki korporazio batean idazkari edo kontu-hartzaile lanpostu bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak deitutako hautapen prozesu baten bidez lortzen dutenek, bertan sartzeko euskaraz jakitea nahitaezkoa bazen, gero batean Nafarroako beste toki korporazio batzuetako lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan parte hartu nahi izanez gero, euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak betetzeko prozesuetan baik ezin izanen dute parte hartu.

Aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, euskararen ezagutza kontuan hartu gabe, erreferentziako hautapen prozeduraren emaitzak bide eman bazion interesdunari betebeharrak hori ezarrita ez duen lanpostu bat lortzeko.

3. Gaikuntza prozesuetako probak gairitu arren, deialdiaren xedeko lanpostu hutsak betetzeko izendatuak ez diren izangaiak Toki Administrazio-ko Departamentuak izendatzen ahalko ditu hari eskatzen dioten toki entitateek administrazio araubidean kontrata ditzan, hala eskatzen duten toki entitateetan lanpostu horiei dagozkien eginkizunetan aldi baterako aritzeko.

Horren ondorioetarako, hautapen prozesu horietan lortzen duten guztirako puntuazioaren arabera lehentasunezko ordena korrelatiboari segituko zaio.

Bigarren azpiatala Lanpostuak betetzea

247. artikulua. Lanpostuak betetzeko sistema, lanpostu hutsak zehaztea.

1. Gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak, oro har, merezimendu lehiaketa bidez beteko dira, salbu eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarrian Iruñeko Udalarentzat ezarritako kasuetan. Lehiaketaren deialdia egitea Nafarroako Gobernuan toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio. Lehiaketa horien deialdia hiru urtean behin eginen da, gutxienez.

2. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak izanen dira ondok azaltzen diren egoeretako batean daudenak, funtzionario araubidean beteta ez badaude eta haien gainean lanpostua gordetzeko eskubideren bat ez badago:

a) Idazkari lanpostuak:

– 800 biztanletik gorako udalerrietan.

– Eratuta dauden zerbitzu batasunetan, elkartutako udalerrri guztien biztanleria 600dik gorakoa baldin bada.

– Plantilla organikoan idazkariaren lanpostua berariaz sortu duten mankomunitateetan.

– Tradiziozko toki entitateen batasunetan, haien ordenantzetan xedatua baldin badago idazkari lanpostua ohiko sistemaren bidez bete behar dela.

b) Kontu-hartzaile lanpostuak: 244. artikuluan xedatutakoaren arabera, aginduzkoak diren lanpostuak edo toki entitateek sortu eta beren plantilla organikoetan sartu dituztenak.

3. Deitzen den lehiaketa bakoitzean, lanpostu bateko titularrak lehiaketa horrexetan beste lanpostu bat lortzeagatik hutsik gelditzen diren lanpostuak ere eskainiko dira betetzeko, aurretik azaldu diren baldintzak betetzen badira betiere.

248. artikulua. Lanpostuak betetzeko deialdien aurreko prozedura.

1. Toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketen deialdia egin baino hiru hilabete lehenago gutxienez, jarduketa hauek eginen ditu:

a) Toki entitateei adieraziko die, foru lege honen 244., 247.2 eta 247.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera, hutsik dauden edo hutsik egon daitezkeen idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuak zeintzuk diren.

b) Mankomunitateei eta, 247.2.a) eta 244.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak sortzeko ahalmena duten gainerako toki entitateei eskatuko die lanpostu horiek badaudela adieraz dezatela, eta, orobat, tradiziozko toki entitateei eta Iruñeko Udalari eskatuko die adieraz dezatela lanpostu horiek lanpostuak betetzeko sistema arruntean sartu nahi dituztela.

c) Lanpostu hutsak dituzten toki entitate guztietatik informazioa bilduko du, jakiteko ea lanpostu horiek minusbalioa dutenentzako txandakoentzat erreserbatuta dauden aplikagarria den araudiaren arabera.

d) Eremu mistoko eta eremu euskalduneko toki entitateei eskatuko die funtzionario araubidean bete daitezkeen lanpostuen hizkuntza eskakizunari buruzko informazioa.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako jarduketak bukatu eta bi hilabete epean, toki entitateek departamentu horretara joko dute, lan hauetarako:

a) Aldi baterako dispentsak eskatzea, hutsik dituzten lanpostuak lehiaketan ez sartzeko. Horretarako egiaztatu beharko dute udal ordezkarien batzorde bat eratu dutela toki entitate elkartu bat osatzeko, beharrezkoak diren eginkizun publikoak elkarrekin egiteko asmoz. Kasu horretan, dispentsa lanpostuak betetzeko hurrengo lehiaketa egin arte izanen da, gehienez.

b) Adieraztea foru gaikuntza behar duten idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak sortu nahi dituztela, 247.2.a) eta 244.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz horretarako ahalmena dutenean. Betebehar hori ez betetzea ez da oztopo izanen lanpostu horiek lehiaketetan ofizioz sartzeko.

c) Bete beharreko lanpostuak minusbaliatuentzako txandakoentzat erreserbatuta daudela konfirmatzea, hala badagokio.

d) Eremu mistoko eta eremu euskalduneko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen hizkuntza eskakizuna zehaztea. Ezarritako epean jakinarazten ez badute, ondorioztatuko da euskaraz jakitea ez dela nahitatezkoa eta merezimendu gisa baloratuko da, bakar-bakarrik eremu euskaldunean. Toki entitate elkartuetan hizkuntza eskakizuna entitatearen egoitza duen toki entitateari dagokiola ondorioztatuko da.

3. Aurreko puntuan ezarritako epea bukatuta eta toki entitateen informazioa aztertuta, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak, lehiaketen deialdia egin baino lehen, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du 247. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen zerrenda eta, behar bada, honakoak zehaztuko ditu: minusbaliatuentzako txandan betetzeko erreserbak, lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna eta aldi baterako dispentsa lortu duten lanpostuak.

249. artikulua. Lehiaketetan parte hartzea.

1. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketetan parte hartzen ahalko dute ondotik aipatzen diren administrazio egoeretako batean dauden toki funtzionario gaituek, betiere lortu nahi duten lanpostua beren karguari eta taldeari dagokiena baldin bada. Alegia:

– Jardunean.

– Zerbitzu bereziak.

– Borondatezko eszedentzia, egoera horretara igaro zenetik urtebete gutxienez igaro bada.

– Eszedentzia berezia.

2. Epaia edo administrazio ebazpen irmo baten bidez desgaituak edo eginkizun-gabetuak dauden funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu lehiaketetan, epaian edo zehatzeko ebazpenean adierazitako epea igaro ez bada.

3. Nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioak lehiaketetan parte hartu eta lanpostu huts guztiak eskatzera beharturik daude.

4. Parte-hartzaileek lanpostuak aukeratzeko prozedura deialdietan ezartzen dena izanen da.

250. artikulua. Merezimenduak.

1. Nahitaez baloratu beharreko merezimenduen baremoa zehaztea Nafarroako Gobernuan toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio, Nafarroako toki entitateen ordezkarien laguntza izanik. Baremoa Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamenduan lekualdatze lehiaketetarako ezarritako aurreikuspenetara egokituko da.

2. Eremu euskalduneko toki entitateetan, euskaraz jakitea nahitaezkoztat jotzen ez bada, merezimendu kualifikatuztat hartuko da, eta haren balorazio osagarria merezimenduen baremoaren guztirako puntuazioaren %10ekoa izanen da.

Eremu mistoko toki entitateetan, euskaraz jakitea nahitaezkoztat jotzen ez bada, eta merezimendu kualifikatuztat hartzea erabaki badute, haren balorazio osagarria merezimenduen baremoaren guztirako puntuazioaren %6koa izanen da.

Euskaraz jakitearen egiaztapena eta kasu bakoitzean balorazioa egiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langileentzat hizkuntza horren ezagutzaren tratamenduaren gainean ezarritako araudiari segituko zaio.

251. artikulua. Epaimahaiak.

1. Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketak ebazteko ardura duten epaimahaietan toki entitateen ordezkariak parte hartuko dute. Epaimahai horietako kideak toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu.

2. Deialdi bakoitzaren aurreikuspenekin bat, epaimahaiak parte-hartzaileek frogatutako merezimenduak baloratuko dituzte eta horien zerrenda ordenatu bat prestatuko dute, bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Zerrendan euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostuetan sartu nahi

duten lehiakideak azalduko dira eta kontuan hartuko da, orobat, foru lege honen 246.(ter).2 artikuluan jasotako aurreikuspena.

3. Lehiaketen ebazpenak eta lanpostuen esleipenen proposamenak toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularrari igorriko zaizkio, eta horrek bidezko diren izendapenak eginen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko direnak.

252. artikulua. Esleipenak eta jabetza hartzeak.

1. Merezimenduen lehiaketen ondorioz lanposturen bat esleitua gertatzen direnek hilabeteko epean hartu beharko dute izendapenaren xedeko lanpostuaren jabetza, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta. Horrekin batera, aurreko lanpostua utzi beharko dute, kasua bada.

Dena dela, administrazio eraginkortasuna helburu, deialdia egin duen organoak lanpostuaren jabetza hartzeko egun jakin bat finkatzen ahalko du. Horrelakoetan, aurreko paragrafoan ezarritako epea gainditzen ahalko da.

2. Lanpostuaren jabetza hartzearekin batera, lanpostuak atxikita dituen funtzionario-eskubide eta -betebehar guztiak bereganatuko dira eta funtzionarioa kasuko korporazioaren menpe geldituko da.

3. Justifikatutako arrazoirik izan gabe lanpostuaren jabetza hartzen ez bada, gaikuntza galduko da. Hori dela kausa bete gabe gelditzen diren lanpostuak hurrengo dealdian eskainiko dira.

4. Hurrengo deialdietan eskainiko dira, orobat, gaikuntza prozesuetan esleitu arren, arrazoi honengatik hutsik gelditzen diren lanpostuak: titularrak borondatezko eszedentzia hartzea lanpostuaren jabetza hartzeko unean beste administrazio publiko batean lanean ari delako.

Laugarren atala **Eskubide eta betebeharrak**

253. artikulua. Ordainsari osagarriak.

Foru gaikuntza duten funtzionarioen ordainsari osagarriak kasuan kasuko toki korporazioak finkatuko ditu, indarreko legerian ezarritakoarekin bat, ondotik aipatzen diren berariazko baldintzen arabera:

1. Nafarroako toki entitateetan funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari eta kontuhartzaile lanpostu guztiak bateraezintasun araubidean beteko dira, salbu eta dedikazio eskusiboa-

ren modaliteko zerbitzu-ematearen araubidea esleitzen bazaie.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako araubideetik edozein esleituz gero, beharrezkoa bada, dagokion plantilla organikoa berrikusi beharko da, araubide berria eta horren ondorioz lanpostu bakoitzari egokitzen zaion ordainsari-osagarria bertan jasotzeko.

3. Foru lege honek indarra hartzen duenerako bateraezintasun araubidea esleitua ez duten lanpostuetan hori ezartzen bada, ezin izanen da handitu lanpostu bakoitzari esleitutako ordainsari-osagarrien guztirako zenbatekoa, salbu eta beharrezkoa baldin bada dagokion mailaren hasierako soldataren %35era iristeko.

4. Dagokion mailaren hasierako soldataren %35eko edo gehiagoko ordainsari-osagarriak esleituak dituzten lanpostuek bateraezintasun araubidea atxikita dutela ulertuko da.

5. Aipatutakoez gain, lanpostuei beste osagarri batzuk esleitzen ahalko zaizkie, lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera, betiere Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren araudian ezarritakoarekin bat baldin badatuz.

254. artikulua. Diziiplina araubidea.

Foru Komunitatearen gaikuntza duten toki funtzionarioei aplikatzekoa zaien diziiplina araubidea Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei aplikatu beharreko indarreko araudian ezarritako dagoena izanen da, berezitasun hauek kontuan harturik:

1) Diziiplina espedienteak hasteko eskumena duten organoak:

a) Arau-hauste arinen kasuan, diziiplina espedienteak hasteko ahalmena korporazioko alkate-udalburuari dagokio eta, entitate bateratuen kasuan, arau-haustea egin den udalerriko alkate-udalburuari.

b) Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan, diziiplina espedienteak irekitzeko ahalmena Toki Administraziozuzendari nagusiari dagokio.

2) Zehapenak jartzeko eskumena duten organoak:

a) Arau-hauste arinengatiko zehapenak jartzea korporazioko alkate-udalburuari dagokio edo, hala badagokio, funtzionarioa organikoki atxikita duen batasuneko buruari.

b) Arau-hauste larriengatiko zehapenak jartzea toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularrari dagokio.

c) Departamentu horretako titularraren eskumena izanen da, orobat, arau-hauste oso larriak egiteagatiko zehapenak jartzea, salbu eta zerbitzutik baztertzea badakarte, kasu horretan Nafarroako Gobernuaren ardura izanen baita.

255. artikulua. Administrazio egoerak.

Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten funtzionarioen administrazio egoerak Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan araututa daudenak dira, baina artikuluko honetan jasotzen diren berezitasunak izanen dituzte:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten funtzionarioen administrazio egoeraren deklarazioa egitea haiek menpean dituen toki entitateko edo batasuneko buruari dagokio, salbu eta eginkizunetatik gabetzekoa, kasu horretan toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren ardura izanen baita.

2. Jarduneko egoeran izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren arabera administrazio egoera hori sortzen duten inguruabarretatik edozeinetan dauden toki funtzionarioak, Nafarroako Foru Komunitateak emandako gaikuntza dutenak, baita ondoko egoeretako batean daudenak ere:

a. Beharrezkoak diren lanpostu berdin-berdinak dituzten toki administrazio batzuen arteko administrazio berrantolaketa bat dela kausa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren hamabigarren xedapen gehigarrian xedatu bezala transferitzen ez direnak.

b. Elkartutako toki entitate baten menpe dauden lanpostuak izanik, entitatea formalki desegin eta kide ziren udalerrietatik bakar bati atxikita gelditzen ez direnak.

Kasu bietan, jarduneko funtzionario horiek behartuak egonen dira lanpostuak betetzeko deitzen den hurrengo lehiaketan parte hartzera eta bertan esleitu daitezkeen lanpostu guztiak eskatzera. Parte hartzen ez badute, nahitaezko eszedentziako egoerara pasako dira.

256. artikulua. Oporrak, lizentziak eta baimenak.

Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza duten toki funtzionarioen oporrak, lizentziak eta baimenak ematea haiek menpean dituzten toki entitateei dagokie, aplikagarria den indarreko araudiarekin bat, eta lekualdatze kasuetan, entitate bakoitzean egindako denboraren arabera.

III. KAPITULUA

Diru-zaintzako eta poliziako langileak

257. artikulua. Diruzain lanpostua.

1. Diruzain lanpostuak, funtzionario estatusari lotutako langileei dagokienez, foru lege honen 240. (ter) artikuluan aipatutako eginkizunen administrazio erantzukizuna dakar berarekin.

2. Diruzain lanpostua beharrezkoa izanen da 25.000 biztanletik gorako udaletan eta horretarako propio sortzen diren udal batasunetan.

3. Diruzain lanpostu bat hartzeko beharrezkoa izanen da A mailako kontu-hartzailearen gaikuntza lortzeko foru lege honetan eskatzen diren titulueta-tik bat edukitzea eta, lanpostua hartzearekin batera, funtzionario araubidea bereganatuko da, kasuan kasuko korporazioaren zerbitzura aritzeko.

4. Kontu-hartzaile lanpostua plantilla organikoan sartzearabaki duten udaletan edo toki entitate elkartuetan, kontu-hartzaileari egokituko zaizkio entitatearen diruzaintzako eginkizunak.

5. Diruzain lanpostua ez duten toki korporazioetan, lehenago xedatutakoaren arabera diruzaintza lanak kontu-hartzaileari esleitu ez bazaizkio, lan horiek korporazioak izendatutako C edo D mailako langile funtzionario batek eginen ditu (lan gehigarri edo osagarriak agintzen ahalko zaizkio), edo korporazioko kideei esleitzen ahalko zaizkie.

6. Diruzain lanpostua duenak diruzaintza lanak egiteak berarekin ekarriko du behar adinako bermea eratzea bere kargura. Bermearen zenbatekoa eta nolakoa dagokion toki entitateko osoko bilkurak finkatuko ditu.

258. artikulua. Udaltzaingoak.

Agintea erabiltzea dakarten lanak udaltzaingoko langileek eginen dituzte eta, hala badagokio, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean eta aplikatu daitezkeen gainerrako arauetan adierazitako langileek.

Lehen xedapen gehigarria. Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak partekatzeke udal batasunak ezartzea.

1.- Idazkaritzako lanak elkarrekin egiteko udal batasunek eta udalek ezinezkoa badute lanpostu horiek funtzionarioekin betetzea foru lege honetan ezarritako atalaseak ez gairatzeagatik, hiru urteko epea izanen dute borondatez bateratzeko prozedurak burutzeko, horrela atalase horretara iritsi eta lanpostu horiek lehiaketa arruntetan sartu ahal izateko.

2.- Aurreko puntuan adierazitako epea bukatuta, Nafarroako Gobernuak baimena izanen du

beharrezkotzat jotzen dituen udal batasunak sortu edo aldatzeko, horietan guztietan ahalbidetzeko idazkaritzako eta kontu-hartzeiletzako zerbitzuak funtzionario batek egiten dituela.

Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriaren 2. puntuko a) eta b) idatz-zatiak honela idatzita geldituko dira:

“a) Iruñeko Udalak, osoko bilkurako idazkari lanpostua betetzeko, aukerabide hauek izanen ditu:

– Lanpostua lege honen 245. eta ondoko artikuluetan araututako betetze sisteman sartzeara. Horretarako, Iruñeko Udalak toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentura jo behar du, foru lege honen 248. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

– Lanpostu hori Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz betetzea. Proba horietan parte hartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek, daukaten lanpostuan sartzeko 246. (bis).1 artikuluan adierazitako tituluren bat eskatu baldin bazaie.

Prozedura horren bitartez lanpostuan sartzen den pertsonak Nafarroako toki entitateetan idazkari gisa aritzeko gaikuntza lortuko du zuzenean, horrelakorik ez badu.

– Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan II. tituluko III. kapituluaren ezarritakoarekin bat.

Prozedura horren bidez lanpostuan sartzen dena zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan.

d) Iruñeko Udalak, kontu-hartzaile orokorraren lanpostu hutsa betetzeko, aukerabide hauek izanen ditu:

– Lanpostua lege honen 245. eta ondoko artikuluetan araututako betetze sisteman sartzeara. Horretarako, Iruñeko Udalak toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentura jo behar du, foru lege honen 248. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

– Lanpostu hori Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz betetzea. Proba horietan parte hartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek,

daukaten lanpostuan sartzeko 246. (bis).2 artikuluan adierazitako tituluren bat eskatu baldin bazaie.

Prozedura horren bitartez lanpostuan sartzen den pertsonak Nafarroako toki entitateetan kontu-hartzaile gisa aritzeko gaikuntza lortuko du zuzenean, horrelakorik ez bada.

– Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduaren II. tituluko III. kapituluaren ezarritakoarekin bat.

Prozedura horren bidez lanpostuan sartzen dena zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan.”

Lehen xedapen iragankorra.

Hala Nafarroako toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak funtzionario araubidean betetzeko foru lege honen 247.2 artikuluan jasotako aurreikuspena, nola Nafarroako Gobernuari horretarako udal batasunak sortzeko ahalmena ematen dion xedapen gehigarria indarrean egonen dira harik eta arauz aldatzen diren arte, Nafarroako toki administrazioaren berrantolaketa administratibo eta funtzional bategatik.

Bigarren xedapen iragankorra.

Foru lege honen 253. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hark indarra hartzen duenean idazkari edo kontu-hartzaile lanpostuetan ari direnek zerbitzuak emateko lehenago zuten araubidean segitzeko aukera izanen dute, lanpostu horretan segitzen duten bitartean.

Hirugarren xedapen iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu ondoren iragarritzen den lehenbiziko deialdian idazkari lanpostu

hauek eskainiko dira bakarrik: foru lege honen 247. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren arabera funtzionarioekin bete daitezkeen lanpostuak izanik, Nafarroako toki araubidea gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatiko lehenengo paragrafoan aurreikusitakoaren arabera deitutako lehiaketan behin betiko betetzeko sartu ez direnak, salbu eta egiaztatzen bada irmoki ebatzi gabeko erreklamaziorik ez dagoela (administrazio edo auzi bidean aurkeztua), xedapen gehigarri horren lehenengo idatz-zatiko hirugarren lerroaldean aurreikusitakoaren arabera.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak. Berariaz indarrrik gabe utzi da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen seiugarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetan lehena.

Nafarroako Gobernuak, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak proposaturik, lege honen xedapenak garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko arauak ematen ahalko ditu, Nafarroako toki entitateetan beharrezkoak diren eginkizun publikoetan aritzearen gainean.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, nafarroako Gobernua premiatzen da, lehenbailehen eta sei hilabete baino arinago, Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala aurkez dezan Parlamentuan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez nafarroako Gobernua premiatzen baita, lehenbailehen eta sei hilabete baino arinago, Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala aurkez dezan Parlamentuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Nafarroak ez dauka hiri-hondakinen tratamendurako plan integralik. Hiri-hondakinei buruzko erabakiak eta jarduerak ikuspuntu taktizista edo beharrekin loturikoetan oinarritzen dira, eta ez dira kokatzen hiri-hondakinen afera konpontzeko proiektu eztabaidatu, hausnartu eta adostu baten barruan.

Gaur egungo egoera sortu da hondakinen bilketa, berreskuratze eta tratamendu sistemak dituen gabezia larrien ondorioz; gainera, sistema horrek urteetan jasan du zalantza jarritako edo galarazitako erabakien eragina, hala nola Gogorako zabortegeari edo Arazuriko biometanizazio-plantari buruzkoak.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen eta sei hilabete baino arinago, Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala aurkez dezan Parlamentuan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeari laguntza integrala emateko udal zentroa finantzatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmen sinatzearen Tuterako Udalarekin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeari laguntza integrala emateko udal zentroa finantzatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmen sinatzearen Tuterako Udalarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Bai Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak Hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea, bai Generoko Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriari buruzko 1/2004 Lege Organikoa onetsi izana erakundeek gizarte osoan eragina duen arazo bat deuseztatzeko egindako ahalegin normatiboaren erakusgarria da.

Argi dago indarkeria sexistaren arazoa konplexua dela; are gehiago kontuan hartzen badugu askotan arazoaren alde muturrekoena edo ikusgarriena baizik ez dugula ikusten, eraso fisikoa hain zuzen.

Ikuspegi konplexu horrexek jartzen gaitu Nafarroan generoko indarkeria deitzen dugun hori pairatzen duten pertsonen arreta integral bat ematearen alde. Izan ere, giza eskubide oinarrikoen aurka egiten duen indarkeria bat da: bizitzarako eskubidea, osotasun pertsonalerako eskubidea,

askatasunerako eskubidea eta bakean bizi ahal izateko eskubidea. Eta auzitan jartzen ditu gure bizikidetasunaren oinarrian dauden funtsezko balio moralak.

Datuek erakusten dute arazo oso larri baten aurrean gaudela, dauzkan dimentsioengatik eta sortzen direneko esparru pribatuarengatik, eta arazo horrek eragina duela familiako harremanetan zein bikoteko harremanetan, Izan ere, aipatu bi harreman-esparru horiek oso ere garrantzitsuak dira pertsonen sentimenduetarako, afektuetarako eta segurtasunerako. Horrenbestez, gizarte osoan eragina duen arazo bat da, eta gizartearen inplikazioarekin eman lekiokoe konponbidea.

Argi dago, horri dagokionez, egin beharreko lehenbiziko gauza dela babes-baliabideak bermatzea Nafarroan gertatzen diren generoko indarkeriako arazo larrientzako; hau da, emakumeen bizitza arriskuan dagoen kasuetarako. Garrantzitsua da gaur eskura dauden baliabideak eskatzen dituzten emakumeen beharrei neurria erantzutea, eta aldi berean bereiztea edo graduatzea tratatu txar mota desberdinak, haien larritasuna, iraupena, erasotako pertsonarengan eragindako endekatze fisiko eta psikologikoa. Zeren eta ez baitituzte eragin berak, eta, beraz, ezin baitute tratamendu bera izan. Eta laguntza integral batek programa oso desberdinak eduki beharko ditu errealitate desberdin horiei erantzuna emateko.

Funtsezkoa da gazteekin lan egitea, prebentzio eta heziketa sozialeko programen bitartez, sozializazio zailtasun arinak atzematen diren jokabideak eta jarrerak berriz hezteko lanetan. Gainera, lan egiten jarraitu behar dugu emakumeen autonomia indartzeko. Haiei berriz hezteko babesa eman behar zaie berrezteko, laguntzako eta bitartekari-tzako praktikak erabiliz.

Horrekin lotuta, Tuterako Udala aitzindaria izan zen eta 2006an abian jarri zuen emakumeari laguntza integrala emateko udal zentroa. Behar zuten emakumeei zerbitzu integral bat emateko helburu argiarekin sortu zen. Alabaina, Nafarroako Gobernuaren laguntza ofizialik gabe jarri zen abian.

Lau urte daramatza funtzionamenduan eta esperientzia oso ona izaten ari da; izan ere, emakumeei eremu bat eskaintzen zaie, indarkeria

sexistaren ondorioei aurre egiteko dauden bideei buruzko informazioa emateko ez ezik, erreferentzi-azko eta, batez ere, konfiantzazko eremu ere bilakatu dena emakume horientzat. Hala aitortzen da, baita ere, Nafarroako Parlamentuan genero indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko talde integralak aztertzeke eratu zen lan-taldeak aho batez onetsitako ondorioei buruzko idazkian.

Horrekin lotuta, beharrezkoa da kontuan hartzea udal zentro horrek ez diela zerbitzu ematen Tuterako emakumeak bakarrik; aldiz, laguntza eskaeren % 40tik gora herri horretan bizi ez diren pertsonen eginikoak dira. Horrenbestez, agerikoa da gure udala eskualdeko zerbitzu bat ematen ari dela eta, hori dela eta, uste dugu garrantzitsua dela Nafarroako Gobernuak ahalegin guztia egitea eta lankidetzeta-hitzarmen egonkor bat sinatzea zerbitzu hori mantentze aldera.

Indarkeria Sexistaren Aurkako Neurri Integralak hartzeari buruzko martxoaren 7ko 12/2003 Foru

Legearen 9. bis artikuluan zehaztuta geratu zen halako zentroak sortzeko asmoa. Halaber, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsitako Nafarroako Plan Estrategikoaren 2.4. jarduketa-ildoan proposatu zen genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko talde berri bi sortzea.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean emakumeari laguntza integrala emateko udal zentroa finantzatzeari buruzko lankidetzeta hitzarmen bat sina dezan Tuterako Udalarekin.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 17an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatzean Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrezaneiei aurre egin ahal izateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen bat negoziatzean Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrezaneiei aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat negoziatzean Orreagako Udalarekin eta Kolegio Elizarekin, haren egoera berezitik heldu diren beharrezaneiei aurre egin ahal izateko.

Zioen azalpena

2010eko apirilaren 16an, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordea, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, bisitan joan zen Orreagara, ondoko helburuekin:

– Kolegio Elizako instalazioak bisitatzea, bereziki gaur egun obretan dagoen erromesen aterpetxea.

– Lan bilera egitea kabildoko arduradunekin, haien itxaropenen eta eskakizunen berri izate aldera.

– Lan bilera egitea udal arduradunekin, haien itxaropenen eta eskakizunen berri izate aldera.

Kabildoko arduradunekin eta udal arduradunekin eginiko bileretan, batzuek eta besteek, parlamentarien bisita adeitsuki eskertzeaz gain, zenbait gabezia azaldu zituzten. Udalaren kasuan, gabezia horiek jasotzen dituen idazki bat igorri diote Kultura eta Turismo Batzordeko lehendakariari, eta honek legebiltzarreko parlamentu-taldeetako ele-dunei igorri die idazki hori.

Eskakizun gehienak egokiak direnez eta Orreaga Nafarroako gainerako udaletatik desberdintzen duten ezaugarri ezohikoak kontuan hartuta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-tal-

deak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak, ondarearen arloan abian dauden edo etorkizun hurbilerako aurreikusita dauden ekintzak ezertan galarazi gabe, Nafarroako Gobernua premiatzen du Orreagako Udalarrekin eta kabildoarekin negoziatu eta, kasua bada, hitzarmen bat sina dezan, eremu monumental horrek eta bere inguruak, erromes eta bidaiarien kopurua gero eta handiagoa izatearen ondorioz, dituzten beharrizan berezietan erantzute aldera.

2. Aurtengoa Donejakueren urte saindua denez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziatio hori arindu dezan, beharrizan horietako batzuei uda iritsi baino lehen erantzute aldera, garai horretan jende kopurua eta eskakizunak bereziki areagotzen baitira.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuaren erregelamendua alda dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita testuliburuaren erregelamendua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea eta hura garatzen duten foru dekretuak onetsi zirenetik, hiru araudi izan dira programa horren finantzaketarako gehienezko zenbatekoa ezartzeko. Bat ikasturte bakoitzeko.

Hiru arau horietako bakoitzak modulu eta finantzaketa-baldintza desberdinak ezarri ditu, eta horrek arazoak sortu ditu programa ikastetxeetan garatzerakoan.

Zuzkidura ekonomikoa txikiagoa da curriculum-material motaren arabera. Kopuru txikiagoa ematen da ikastetxeak erabakitzen badu testu-liburuaren ordez erabilera arrunteko materialak edo irakasleak prestatuturiko materialak erabiltzea. Horrek, printzipioz, ikastetxeen autonomia mugatzen du.

Urriaren 15eko 166/2009 Foru Aginduaren bidez, mugatu egiten da ikasle bakoitzeko dirula-

guntza aukeratutako testu-liburuaren arabera. Horrek 14.1 artikulua edukia eta zentzua hutsaldu egiten du; izan ere, artikulua horretan ondokoa esaten da: "Ikastetxeak aukeratu dituen testu liburuaren zenbatekoa txartelean agertzen dena baino txikiagoa bada, ikastetxeek erabilera arrunteko beste material didaktikoren bat erosteko erabili ahal izanen dute gerakina..."

Lehen Hezkuntzan, zenbateko hori ez da nahikoa ikasle guztiarentzat komunak diren ikasgaietako curriculum-material edo testu-liburu guztiak finantzatzeko, eta, horietaz gain, kontuan hartu behar dira euskararako, matematika tailerrerako, hizkuntza tailerrerako eta erlijiorako material edo liburuak. Horrek ikastetxe asko behartu ditu curriculum-materialen erabilera mugatzera.

Hezkuntza premia berezietako ikasleak ez dira zenbatzen beren erreferentziazko ikasturteko testu-liburuaren doakotasunerako eskubidea duten ikasle gisa, beste eskola-ordutegiaren zati handiena ikasgela orokorrean igarotzen badute ere.

Ez da kontuan hartzen ikasturte bakoitzeko ikasle kopuru erreala. Ikastetxeek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dute programan parte hartzeko eskubide duten ikasleen zerrenda, baina ikastetxe askotako matrikulazioak gora egiten du nabarmen irailan. Gainera, ikasturte guztian zehar ikasle berriak onartzen dira.

Ikasturte bakoitzerako aldaketek eta kudeaketa-prozeduraren zailtasunak ikastetxeak behartzen dituzte arauan ezarritako baldintzetara egokitzera, irakasle taldeek beren hezkuntza proiektua garatzeko egokienak diren curriculum-materialak eta/edo testu-liburuak aukeratzeko duten autonomiaren kaltetan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du testu-liburuari buruzko erregelamendua alda dezan, ondoko helburuekin:

- Ikastetxe bakoitzaren zuzkidura ekonomikoa matrikulazio-aurreikuspenaren arabera kalkulatzeko, kontuan hartuta ikasturte osoan zehar ikasle kopurua handitu egiten dela.
- Zuzkidura baino % 10 gehiago esleitzea, aurreikusita testu-liburuak edo materiala hondatu edo galdu egin daitekeela.
- Uko egiteari buruzko aipamena kentzea.
- Hezkuntza Departamentuak kontrolatzea eta ikuskatzea ikastetxe bakoitzak, testu-liburuaren doakotasunari buruzko programa dela-eta, egiten duen kudeaketa.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Jaso dugun informazioaren arabera, toki entitatei eta bestelako erakunde, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei prebentzioa eta osasuna sustatzeko programetarako dirulaguntzak emateko deialdiak murrizketa handia izanen du. Deialdi horren garrantzia adierazteko, esan behar da aurreko urteetan 400 toki entitate, gizarte-zerbitzuen mankomunitate eta askotariko elkarte baino gehiagok parte hartu dutela.

Deialdi horren bidez hainbat ekintza gauzatzen dira prebentzioa eta osasuna sustatzeko, bai eta familiei nahiz gizartean ahulago egiten dituzten osasun arazoak dituzten pertsonen laguntzeko ere.

Halako murrizketek ondorio kaltegarria izaten dute, gizartean babes gutxien duten familia eta pertsonen laguntzeko programak mantendu ezinaren eraginez, eta, halaber, herritarren osasunak eta bizi kalitateak okerrera egitea eragiten dute. Hori dela eta, uste dugu Gobernuak ildo bat zehaztu beharko lukeela denbora zehar modu egokian funtzionatu duten planei eusteko eta,

egun bizi dugun egoera ikusirik, laguntzarik gabe ez uzteko bizi baldintza okerrenak dituzten herritarrek.

Bestalde, badirudi Gobernuak murrizketa ezarri duela inolaz ere baloratu gabe zer ondorio ekar dezakeen babesgabeenekin –hala baitira drogamendekotasuna edo hiesa duten pertsonak, bai eta arraza dela-eta ahulagoak diren gizataldeak ere (ijitoei zuzenduriko programak)– denboran zehar eginiko lan bat galtzeak.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 Ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez ditzan murriztu pertsona erabiltzaileen bizi baldintzak garatzeko eta hobetzeko funtsezkotzat jotzen diren programak finantzatzen dituzten hitzarmenak, dirulaguntzak edo bestelako tresnak. Halaber, premiatzen da aitor dezan osasun arloko proiektuetan jardun parte hartu duten elkarteek eta udalerrietako oinarrizko gizarte zerbitzuek eginiko lana.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Estatuako Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Estatuako Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari exijitzeko ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28tik aitzina gertatutako krimenak eta giza eskubideen urraketak argitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

MOC 102

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Honduras Erdialdeko Amerikako herrialde txiki bat da, interes estrategikorik ez ekonomikorik ez duena. Hala definitu zuen bere herrialdea Ismael Moreno –Aita Melo– jesuitak iragan maiatzaren 7an Legebiltzarrean egin genuen lan bileran. Interes handirik gabeko herrialdea zirudien arren, 2009ko ekainaren 28an estatu kolpe bat izan zen, eta, haren ondorioz, Manuel Celaya lehendakari hautetsia kargutik kendu zuten.

Bai Hondurasen bai nazioartean, estatu kolpea babestu zuten sektoreek kanpaina bat hasi zuten ideia bat legitimatze aldera; hain zuzen, iragan azaroaren 29ko hauteskundeak krisi politikoaren

konponbidea izanen zirela. Izan ere, hauteskundeak egin eta gobernu berriak kargua hartu ondoren, estatu kolpea iraganeko kontua izanen zen. Jakina denez, Hondurasko estatu kolpearen ondoko trantsizioan hauteskundeak egin ziren eta, horien bidez, Porfirio Lobo lehendakari izendatu zuten Micheletti kolpistaren ordean, baina azken horren inguruan ez da giza eskubideen urraketagatiko ikerketa penalik ireki. Nazioarteko komunitateak, Espainiako Estatuak barne, argi utzi zuen hauteskunde demokratikoez hitz egiteak, de factoko gobernu bat egonda, esan nahi duela ez dela konfiantza hartzen horretarako aginduzkoa dela giza eskubideen errespetua bermatuko duten baldintzak eta askatasun publikoak izatea.

Azaroaren 29ko hauteskundearen aurretik eta haiek egin bitartean, de factoko Gobernuak izu giroa eta gerra psikologikoa zabaldu zituen, gizar-tearen militarizazioaren eta polizia militarren botere erakustaldiaren bidez, disidentzia oro isilarazteko prest baitzeuden.

2009ko ekainaren 28tik, egun horretan izan baitzen estatu kolpea, giza eskubideen urraketak ugariak izan dira: erailketak; sexu erasoak; atxilotuak arbitrarioak; legez kanpoko bizileku-bortxaketak; aldi baterako bahiketak; torturak; tratu krudelak, ankerrak edo iraingarriak, Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarrak salatu duenez; kazetarien hilketak sistematikokoak (zazpi, azken hilabetetant) eta beste hainbaten aurkako heriotza mehatxuak. Horren ondorioz, Mugarik Gabeko Kazetariak erakundeak adierazi du Honduras dela munduko herrialderik arriskutsuena komunikabideetan lan egiten dutenentzat.

Nazioarteko komunitateak behar morala du, bai eta legezkoa ere, Hondurasen giza eskubideen arloan jasaten ari diren egoera larria alde batera ez uzteko, eta, Lobo Sosaren gobernuak aintzat hartu ahal izateko, baldintza batzuk jartzeko; hain zuzen, halakorik ez dadila gertatu berriro eta gertakari haiek iker daitezela, arduradun material eta intelektualak zigortze aldera.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Estatuko Kanpo Arazoetarako Ministerioari eska diezaion haren kide hondurastarrari ondokoa exijitzeko:

- Ikerketa independente bat egin dezaten 2009ko ekainaren 28az geroztik izandako krimen eta giza eskubideen urraketek buruz, Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideetarako duen goi-komisarioari atxikitako egiaren batzorde baten bidez, eta Hondurasko Gobernuak konpromisoa har dezan prozesu bat abian jartzeko, aipatu urraketan

arduradun material eta intelektualak epaitze alde-
ra.

- Justizia Auzitegi Nagusiko buruak eta Errepublikako fiskal nagusiak beren kargutik kentzea, zerikusi zuzena izateagatik estatu kolpearen sus-tapen eta babesarekin, Hondurasen lortu ahal izan dadin prozesu independente bat izatea justizia aplikatzerakoan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan.

Zioen azalpena

1982an Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Gizarteratzeari buruzko Legea onetsi zenetik, Nafarroako hezkuntza sistemak aurrera egin zuen ezgaitasunak dituzten pertsonen integrazioaren arloan, pertsona horiek ikasgela arruntetan integratzearen aldeko apustu garbia egin baitzuen.

Lan horretan zerikusi handia izan dute irakas-kuntzan aritzen diren guztiek: logopedek, espezialistek, orientatzaileek, tutoreek eta irakasle arrun-tek. LOGSE onetsi zenetik, aniztasunaren tratamenduak helburu nagusi hartu ditu ezgaitasun egoeren ondoriozko hezkuntza premiak, eta ez hainbeste ezgaitasuna bera –uste baitzen ezgaitasun egoera zela ikaslearen baldintza per-sonalen eta ikaslearen testuinguruaren arteko elkarreraginaren emaitza–. Hala, ikasle horiei hez-kuntza laguntza emateko ikuspegi berri bat sortu zen, eta normalizazioaren eta integrazioaren prin-tzipioak finkatzen bereziki lagundu duten curricu-lum- eta antolamendu-neurriak diseinatu ziren. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentro-aren sorrera ere mugarri garrantzitsua izan zen ibilbide horretan.

Ikuspegi hori pizgarri garrantzitsua izan zen, eta ahalbidetu zuen zenbait neurri abian jartzea, hala nola curriculum berariazkorako unitateak, gela alternatiboak, trantsiziozko gelak, Lanbide Hastapen Bereziko zentroak edo eskolatze parte-katua. Horiek guztiak ikastetxe arruntetan ezarri ziren. Horretaz gain, lehentasunezko zenbait ikas-

tetxe arrunt zehaztu ziren, entzumenaren eta mugimenduaren arloko hezkuntza premiak dituzten ikasleei laguntze aldera.

Hezkuntza premia larriagoak dituzten ikasleei dagokienez, haiei hezkuntza bereziko ikastetxeetan laguntzen zaie: sare publikoko Andrés Muñoz eta Torre Monreal ikastetxeetan eta sare itunduko El Molino eta Isterria ikastetxeetan.

Hala ere, eragin larriko ezgaitasun anizkoitzak dituzten ikasleen kopurua areagotzearen ondorioz, beharrezkoa da laguntza-modalitate berriak garatzea, haur horien hezkuntza premien eta beharri-zen pertsonalen arabera egokituak. Ikastetxe baten eskola-antolamendu arrunta, bai eta gaur egun hezkuntza bereziko ikastetxeetarako proposatzen dena ere, ez da egokiena. Oso beharrezkoa da zenbait gauza aldatzea, hala nola denboraren antolamendua eta profil profesionalak; izan ere, arreta handiagoa jarri beharko litzateke estimazioan eta osasunarekin, fisioterapiarekin, errutinen ezarpenarekin eta zainketarekin loturiko beharri-zenetan. Horri gehitu behar zaio eragin larriko ezgaitasun anizkoitzak dituzten ikasleek arreta jarraitua behar dutela egun osoan zehar, eskola-egunak, eskola-egun ez direnak eta opor-erak bereizi gabe.

Ikasle horien arreta loturik dago haien familien beharri-zenekin; izan ere, prozesuaren zati funtsez-

koa dira, zalantzarik gabe, eta, haien seme-alaben ezaugarriak direla-eta, jarduera ildoak eta babesa eman behar zaizkie.

Ikusirik garrantzitsua dela ikasle horien garapenerako eta, halaber, kontuan hartuta haien famili- en beharri-zenak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki pro- posamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premiatzen du eragin larriko ezgaitasun aniz- koitzak dituzten ikasleen hezkuntza-premia berezi- ak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter- dezan. Ikastetxe horren antolamenduak, ordutegi- ei, egutegi- ei, arreta modalitateari eta profesional- ei dagokienez, nahaste horiek sortzen dituzten behar- rizen errealei erantzun beharko lieke. Halaber, ikastetxe horrek egoitza-zerbitzua izan beharko luke ikasleentzat, arreta integrala eskaintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premiatzen du ikasle horiek udako hilabetee- tan eta oporraldietan artatzeko programak diseina- tu eta abian jar ditzan, egunero behar dituzten arreta- eta estimulazio-programekin jarraitu ahal- dezaten.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko maiatzaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnologikora bisitak egin ahal izateko programa bat presta dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premiatzen du herritarrentzako bisita-egitarau bat gauzatu dezan Lizarrako Julio Caro Baroja museo etnologikoaren behin-behineko egoitzan, behar bezala ezarriko diren baldintzetan.

2. Egitarau hori indarrean egon beharko da 2010eko irailaren 1ean.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da eman beharreko xedapenak eman ditzan Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua aplikatze aldera.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAJETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak, 2010eko maiatzaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da eman beharreko xedapenak eman ditzan Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua aplikatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da eman beharreko xedapenak eman ditzan Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua aplikatze aldera

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Osasun eta Gizarte Politika Ministerioaren bitartez bere erantzukizunari hel diezaion eta modu eraginkorrean dinamiza ditzan beharrezkoak diren prozedurak eta xedapenak, Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua bere osotasunean aplikatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita testuliburuak finantzatzeko erregelamendua alda dezan, erretiratu iza-

naren berri izan duela. Mozio hori 2010eko maiatzaren 21eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez egokia den eliza katolikoari 40.000 euro ematea gure ondarea ikusten utz diezagun.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez egokia den eliza katolikoari 40.000 euro ematea gure ondarea ikusten utz diezagun.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismoko kontseilari Corpas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez egokia al da eliza katolikoari 40.000 euro ematea gure ondarea ikusten utz diezagun, jakinik, bestalde, dirulaguntza garrantzitsuak eman direla ondare hori leheneratzeko eta zaharberitzeko?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Museoei buruzko Foru Legearen garapenari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Zioen azalpena

Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legeak, zeina Legebiltzarrak 2009an onetsi baitzuen, bere artikuluetan hiru urteko epea ezartzen du legea osoki garatua izateko.

Lege horrek onetsi zenetik izan duen garapena ezagutze aldera, parlamentari honek zenbait idatzizko galdera aurkeztu zituen martxoaren 25ean. Gobernuak maiatzaren 5ean erantzun zien galdera horiei.

Bestalde, iragan maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko Eguna ospatu zen, egun horretarako

bereziki prestaturiko programaren bidez. Hori dela eta, Nafarroako erreferentziazko bi egunkariak erreportaje bana argitaratu zuten, gure erkidegoko museo garrantzitsuenetako arduradunen adierazpenak jasotzen zituztenak. Ez dago esan beharrik haien iritziek ez zetozeela bat Gobernuak egun batzuk lehenago parlamentari honen idatzizko galderari emandako erantzunekin.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Gobernuak berresten al ditu parlamentari honek eginiko galderei emandako erantzunak?

- Zer iritzi duzu Nafarroako museo-zuzendarien eginiko eta Nafarroako prentsa idatzian jasotako adierazpenak direla-eta?

- Hori guztia ikusirik, zer neurri hartu behar ditu Gobernuak Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legearen garapena sustatzeko?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroan paratutako haize-energiako eremu esperimentalei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan paratutako haize-energiako eremu esperimentalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2007ko urriaren 2an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak epaia eman zuen, zeinaren bidez Parke Eoliko Berrien Onespina Bertan Behera Uzteari buruzko duen abenduaren 24ko 685/1996 Foru Dekretuaren 10. artikulua erabateko deuseztasuna deklaritzen baita. Harrezkero, ugaritu egin dira haize-energiako eremu esperimentalak Nafarroan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zenbat dira, gaur egun, Nafarroan paraturiko haize-energiako eremu esperimentalak?

2. Zenbat dira paratzeko zain dauden proiektuak?

3. Nafarroako Gobernuak, bidezkoak diren baimen guztiekin batera, ingurumen ukipenatarako baimena eman behar al die bere bulegoetan aurkeztu diren proiektu guztiei?

4. Haize-energiako eremu esperimentalen proiektuak sartzen al dira I+G+B programaren batean? Zeinetan?

5. Kontuan hartuta gaur egun Nafarroako toki-rik egokienetan badaudela parke eolikoak, zein eskualde, eremu edo ingurutan ari dira paratzen haize-energiako eremu esperimentalen proiektuak?

6. Zein da haize-energiako eremu esperimentalen proiektuen eginkizuna?

7. Proiektu horiek ordezkaturiko dituzte gaur egungo parke eolikoak?

8. Zer egiten da ekoizturiko energiarekin?

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, gazte etorkinekin lan egiten duten elkarteei buruz onetsitako erabakiaren betetze mailari.

ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Aldatzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko galdera, gazte etorkinekin lan egiten duten elkarteei buruz onetsitako erabakiaren betetze mailari buruzkoa, eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren kontseilariak erantzun dezala agintzea. Galdera hori 2010eko

maiatzaren 7ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Xedatzea aipatu galdera Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordean izapidetu dadin.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzea.

LAN-TALDEA BUKATU DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzeke lan-taldeak 2010eko maiatzaren 14an harturiko Erabakia, ondokoa ERABAKI DA:

1. Erabaki hori jasotzat ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lan-taldea, NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzea.

OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Hezkuntza Batzordeak, 2010eko maiatzaren 18an, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatutakoin bat, lan-talde bat eratzea erabaki zuen NUPen epe ertaineko eta luzeko helburuak eta planak aztertzeke, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu lan-taldearen osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2010eko maiatzaren 27ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Hezkuntza Batzordeko kideen artean, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat

zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratu den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Lan-taldea eraten denetik bederatzi hilabeteke epean bukatuko da azterlana egiteke epea.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera. (7-10/PON-00002).

4. Erabaki hau parlamentu-taldeetako eta foru parlamentarien elkarteetako eledunei helaraztea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Parlamentuaren Erregelamendua aldatzeko lan-talde bat sortzeko erabakia.

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua aldatzeko lan-talde bat sortzeko erabakia”, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 2010eko maiatzaren 17an egindako bilkuran onetsia. Hona testua:

“**1.** Erregelamendu Batzordean lan-talde bat eratzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan sartu beharreko aldaketak aztertzeko. Parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek ordezkari bana izendatuko dute lan-taldeko kide izateko, eta erabakiak boto ponderatu bidez hartuko dira.

Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztuko dira aipatu lan-taldeko kideak, eta epea dato- rren maiatzaren 20ko hamabietan bukatuko da:

2. Lan-taldearen helburua izanen da txosten bat egitea, bertan jasotzeko Legebiltzarreko Erregelamenduan, ponentziako kideen iritziz, egin beharko liratekeen aldaketak eta, halaber, aldatu edo egokitzeko proposatzen diren artikuluen testuetarako proposamenak.

3. Lan-taldeak bere txostena egin eta Mahaiari eta Eledunen Batzarrari aurkezteko epea sei hilabetekoa izanen da eratzten denetik hasita, helburua baita Erregelamendu Batzordeak Erregelamendua aldatzeko proposamena legegintzaldi honetan eztabaidatzea eta, hala, Osoko Bilkuran onar litezkeen Erregelamenduaren aldaketek hurrengo legegintzaldian hartzea indarra.”

Iruñean, 2010ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2010 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 4/2010 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 4/2010 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

4/2010 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena aplikatzeko araudiari buruzkoa da. Horretarako, ezarri egiten da Foru Komunitateak Estatuaren lurraldean uneoro indarra duten oinarritzko printzipio berak eta arau substantibo eta formal berberak aplikatuko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru

Komunitateko Administrazioak aitorpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde komuneko datu berekin; likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak ere finkatzen ahalko ditu, baina funtsean ez dira Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik desberdinak izanen.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54.1 artikuluan xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide komunaren aldaketa batek behartzen badu estatuan uanean-unean indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, arauetarako duen ahalaren esparruan, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzia baitu, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, legegintza delegatu hori osatzen duten Nafarroako Gobernuaren xedapenek tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretuen titulua hartuko dute.

Berreskuratze ekonomikoa eta enplegua sustatzeko neurriei buruzko apirilaren 9ko 6/2010 Errege Dekretu-Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, eta horregatik beharrezkoa da, aipatu legegintza delegatua erabiliz, tributu harmonizazioaren gaineko legegintzako foru dekretu baten bidez eta 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua horri jarraituz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea; hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren lurraldean indarra duten arau substantibo eta formal berak aplikatu behar dituen alderdi zehatzetan, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Zaharberritzeari lotutako kostu fiskalak murriztearren, bi neurri hartu dira: alde batetik, zabaldu egiten da etxebizitzaren egitura zaharberritzearen kontzeptua, antzeko obratzat jotzen direnak zehazten dira eta lotutako obren kontzeptua erasten; eta bestetik, eta aldi baterako, 2012ko abenduaren 31 arte, tasa murriztua aplikatuko zaie etxebizitzetarako diren eraikinak edo haien zatiak berri eta konpontzeko obra exekuzioei, baldin zenbait baldintza betetzen badira. Tasa murriztu hori igeltserotzako obra exekuzioei bakarrik aplikatzen zaie gaur egun.

Zergapeko eragiketek jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak osorik edo parte batean kobraezinak direnean, zerga-oinarria murrizteari dagokionez, baldintzak arindu egiten dira, eta eragiketen bolumena 6.010.121.04 eurotik gorakoa duten enpresei bakarrik murriztuko zaie kobratu gabe egin beharreko epea, urtebetetik sei hilabetera, zerga sorrarazten denetik edo ordaindu gabeko epearen mugaegunetik.

Mendekotasunean daudenez arduratzen diren zenbait zerbitzuri, hala nola telelaguntzari, etxez etxeko laguntzari, gaueko eta eguneko zentroari eta egoitzako laguntzari, %4ko tasa murriztua aplikatuko zaie, baldin zentro edo egoitzetako plaza itunduetan ematen badira edo enpresari esleitutako lehiaketa administratibo baten ondoriozko prezioak direnean.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko arau komun onorioekin bat etor daitezten.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat.- 8.2.1 artikulua.

“1. 6. artikuluaaren ildoan, eraikin bat altxatu edo zaharberritzea helburu duten obrak, haiek gauzatzeko dituen enpresaburuak materialen zati bat jartzeko duenean; betiere, haien kostua zerga-oinarriaren %33tik gorakoa bada.”

Bi.- 17.1.12 artikulua.

12. A) Eraikinak altxatu edo zaharberritu ondoren egiten diren bigarren entregak eta ondorengok, eraikinak zein lurretan dauden, haiek ere barne.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, sustatzaileak, eraikuntza edo zaharberritze obra bukatuta dela, egiten duen entrega lehen entregatzat hartuko da. Hori hala izanik ere, sustatzaileek egindako entregak ez dira lehenengo entregatzat hartuko, baldin eta entrega hori jabeak berak, eraikina gozatu edo erabiltzeko eskubide errealek dituzten titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentamendu kontratuaren bidezko maizterrek bi urtez edo gehiago jarraian erabili ondoren egiten bada, salbu eta epe horretan eraikina erabili zuena eroslea bera baldin bada. Ondorio horretarako, ez da kontuan hartuko erosleek eraikina erabiltzen egindako denbora, hura eskualdatzeko egindako eragiketak ebazten diren kasuetan.

Eraikinen urbanizazio obra osagarriak zer lurretan egin diren, haiek ere eraikinak kokatzen diren lurretan sartuko dira. Dena dela, familia bakarreko etxebizitzak badira, lurzoru urbanizatu osagarriak ez dira 5.000 metro koadrotik gorakoak izanen.

7.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioz zergari lotuak ez dauden eskualdaketak ez dira lehenengo entregatzat hartuko zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Zenbaki honetan aurreikusitako salbuespena ez da honako hauetan aplikatuko:

a) Errentamendu kontratu bati berez atxikitako erosteko aukera baliatzearen ondorioz egiten diren eraikinen entregak, finantza errentamenduko eragiketetan diharduten enpresek egiten dituztenean. Ondorio horietarako, berdina dira errentatzaileari erosteko aukerabidea baliatzeko konpromisoa eta aukera hori baliatzea.

b) Erosleak zaharberritzeko egiten diren eraikinen entregak, baldin erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen badira.

c) Eraisteko diren eraikinen entregak, gero bertan hirigintza sustapen bat egiteko.

B) Foru lege honen ondorioetarako, eraikineta obrak zaharberritzekoak izateko, baldintza hauek beharko dira bete:

1. Helburu nagusia haiek berreraikitzea izatea; hau da, baldintza hori betetzat emateko, zaharberritze proiektuaren kostu osoaren %50etik gorakoa egiturazko elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotzeko eta tratatzeko obretarako izan beharko

du, edo zaharberitze obren antzekoetarako edo haiei lotutako obretarako.

2. Proiektuan aipatzen den obren kostu osoa eraikina erosteko prezioaren %25etik gorakoa izatea, zaharberitze obrak hasi aurreko bi urteren barrenean erosi bada edo, bestela, eraikinak edo haren parte batek obrak hastean merkatuan duen balioaren %25etik gorakoa izatea. Horren ondorioetako, lurzoruari dagokion kostu proportzionala kenduko da eraikinaren erosketa prezioetik edo merkatuko balioetik.

Honako hauek zaharberitze obren antzekotzat hartuko dira:

a) Egitura egokitzen duten obrak, eraikinari segurtasuna ematen badiote eraikuntza aldetik; alegia, haren egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa bermatze aldera.

b) Haren zimenduak sendotu edo egokitzen dituzten obrak, baita zutabeak edo forjatuak tratatzen dituztenak ere.

c) Eraikitako azalera, sestra gainekoa zein azpikoa, handitzen dutenak.

d) Fatxadak eta barreneko patioak berreraikitzen dituzten obrak.

e) Goragailuak ezartzeko obrak, oztopo arkitonikoak kentzekoak barne, desgaitasuna dutenek erabiltzekoak.

Ondotik aipatzen direnak zaharberitze obrei lotutakotzat hartuko dira, baldin haien kostu osoa egiturazko elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotu edo tratatzeko obren ondoriozkoa edo horien antzekoena baino txikiagoa bada; betiere, haiei lotuta egon beharko dute modu banaezinean, eta ez dira eraikinaren akabera edo apaindura hutsa izanzen ezta fatxadaren mantentze edo pintatze lan hutsa ere.

a) Igeltserotza, iturgintza eta zurgintzako obrak.

b) Itxiturak, instalazio elektrikoak, ura eta klimatizazioa eta suteen aurkako babesak hobetu eta egokitzekoak.

c) Zaharberitze energetikoko obrak.

Zaharberitze energetikoko obratzat hartuko dira eraikinaren portaera energetikoa hobetzeko direnak, haien energia eskaera gutxitzen dutelako, sistema eta instalazio termikoen errendimendua igotzen dutenak edo energia iturri berriztagarriak baliatzen dituzten ekipoak jartzen dituztenak.”

Hiru. - 28. artikulua, 4. eta 5. zenbakiak.

“4. Zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal da, orobat, kargaturiko eragiketengatik jasana-

razitako kuotei dagozkien kredituak, osorik edo partez, kobraezinak direnean.

Horren ondorioetarako, kreditu bat osorik edo partez kobraezina dela ondorioztatuko da baldintza hauek betetzen baditu:

1. Jasanarazitako zerga sortu zenetik urtebete igarotzea haren ondoriozko kreditua osorik edo partez kobratu gabe.

Nolanahi ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketen kasuan, urtebete igaro beharko da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitzen direnetik zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal izateko. Ondorio horietarako, eperako edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira kontraprestazioa ordainketa bakarraren edo hurrenez hurrenekoen bidez beteko dela itundu diren horiek; betiere, jasanarazitako zerga sortzen denetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epea amaitzen den arte urtebete baino gehiago igaro bada.

Murriztu gogo den zerga-oinarriari dagokion kreditu eskubidearen titularraren (enpresaburua edo profesionala) eragiketen bolumena, 66. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, ez denean 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan aurreko urte naturalean, 1. baldintza honetan aipatu urtebeteko epea sei hilabetekoa izanzen da.

2. Inguruabar hori zergarako behar diren erregistro-liburuetan jasota izatea.

3. Eragiketaren hartzailleak enpresaburu edo profesional gisa jardutea, edo, bestela, eragiketaren zerga-oinarria, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, 300 eurotik gorakoa izatea.

4. Subjektu pasiboak kobrantza eskatu izatea zordunari erreklamazio judizial baten bitartez edo notario bidezko errekerimendua eginda, baita ente publikoek bermatutako kredituak direnean ere.

Ente publikoek zor dituzten kredituak direnean, 4. baldintzan aipatu erreklamazio judizialaren edo notario bidezko errekerimenduaren orde, ente publiko zorduneko organo eskudunaren ziurtagiria baliatuko da, bertako kontu hartzaillearen edo diruzainaren txostenarekin bat, non haren betebeharra eta zenbatekoa aitortuko baitira.

Aldaketa hiru hilabeteko epean egin beharko da, 1. baldintzan aipatu urtebeteko epea bukatzen denetik, eta horrez gainera, zerga arloko administrazioari jakinarazi beharko zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Murriztu gogo den zerga-oinarriari dagokion kreditu eskubidearen titularraren (enpresaburua edo profesionala) eragiketen bolumena, 66. artiku-

luan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, ez denean 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan aurreko urte naturalean, aurreko lerroaldean aipatu urtebeteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Zerga-oinarria murriztu ondoren, ezin izanen da hura handitu, subjektu pasiboak kontraprestazio osoa edo zati bat kobratzen badu ere, salbu eta hartzaileak ez badu enpresaburu edo profesional gisa jarduten. Horrelako kasuetan, ulertuko da balio erantsiaren gaineko zerga jasotako dirukopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, subjektu pasiboak bertan behera uzten badu zordunari erreklamazio judiziala egitea edo notario bidezko errekerimenduaren ondotik kobratzeko akordioa lortzen badu, horren edo beste edozein arrazoiren ondorioz, berriz igo beharko du zerga-oinarria, erreklamazioa bertan behera utzi edo kobratzeko akordioa lortu eta hilabeteko epean faktura zuzentzaile bat luzatuta, non behar den kuota jasanaraziko baita.

5. Zerga-oinarria aldatzeko kasuetan, aurreko 3. eta 4. zenbakietan aipatutakoetan, arau hauek aplikatuko dira:

1. Ez da bidezkoa zerga-oinarria aldatzea kasu hauetan:

a) Berme erreala duten kredituak, zati bertan.

b) Kredituko entitateek edo elkarren bermerako sozietateek bermatutako kredituak edo kauzio- edo kreditu-aseguruko kontratu baten bidez estaliak, bermatu edo segurtatuko partean.

c) Lotutako pertsona edo entitateen (27.5 artikuluan definituak) arteko kredituak.

d) Ente publikoek zor edo bermatuta dituzten kredituak.

d) letran xedatutakoa ez da aplikatuko zerga-oinarria murrizteko, hau da, osorik edo parte batean kobraezintzat jotako kredituetarako, 4. zenbakian ezarritakoaren arabera; alabaina, agiri bidez frogatu beharko da ordaindu ez izana, agindu horren 4. baldintzan aipatzen dena.

2. Eragiketen hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean kokatua ez badago, ezta Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan ere, ez da bidezkoa zerga-oinarria aldatzea.

3. Aipatu aldaketa aurreko ordainketa partzialen kasuan, ulertuko da balio erantsiaren gaineko zerga jasotako dirukopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

4. Eragiketen hartzailearen kenkariak zuzentzen direnean (60.2.2 artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoaren arabera egin beharko da) sortuko da Ogasun Publikoaren aldeko kreditua.

Zergari atxikitako eragiketen hartzaileak ez badu zergaren kenkari osorako eskubiderik izan, Ogasun Publikoaren zordun ere izanen da; kenkari gabeko zergaren kuotaren zenbatekoa izanen du zor.”

Lau.- 37. artikulua.Bat.1.7.

“7. Etxebizitza gisa erabiltzeko gai diren eraikinak edo haien parteak, aparkatzeko tokiak barne, bi unitate gehienez ere, eta aldi berean eskualdatzen diren haien eranskinak.

Foru lege honi dagokionez, negozioko lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, nahiz eta etxebizitzetarako eraikinekin edo haien parte batekin aldi berean eskualdatu.

Eraisteko diren eraikinak, 17.1.12 artikuluko A) zatian, c) letran aipatzen direnak, ez dira etxebizitza gisa erabiltzeko moduko eraikintzat hartuko.”

Bost.- 37. artikulua.Bat.2.9.

“9. 17.1.17. artikuluan aipatzen diren zerbitzuen prestazioak, salbuetsita ez daudenean arau horien arabera eta artikuluko honen Bi.2.3 zenbakian ezarritako zerga-tasa aplikatzen ez zaienean.”

Sei. 2010eko apirilaren 14tik eragina duela eta 2012ko abenduaren 31 arteko indarraldia, honela idatzita gelditzen da 37. artikulua.Bat.2.15:

“15. Etxebizitzetarako eraikinetan edo haien parteetan egindako zaharberritze eta konpontze lanak, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Hartzailea pertsona fisikoa izatea, enpresaburu edo profesional gisa ez jardutea eta obren xedeko etxebizitzak erabilera partikularra izatea.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, aipatu obren hartzailea jabeen elkarte bat denean, obra horiek ere zenbaki honetan sartuko dira.

b) Obren xedeko etxebizitza eraiki edo zaharberritzea haiek hasi baino bi urte lehenago bederen bukatu izatea.

c) Obrak egiten dituen pertsonak haietarako materialik ez jartzea, eta jarriz gero, eragiketaren zerga-oinarriaren %33tik gorako kostua ez izatea.”

Zazpi.- 3. zenbakia gehitzea 37.Bi.2. artikuluari.

“3. Telelaguntzaren zerbitzua, etxez etxeko laguntzarena, gaueko eta eguneko zentroena eta egoitzako laguntzarena, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden per-

tsanak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c), d) eta e) letretan aipatzen direnak, foru lege honen 17.1.17 artikulua aplikatuta salbuesten ez badira; betiere, zentro edo egoitzetako plaza itunduetan ematen badira edo enpresei esleitutako lehiaketa administratibo baten ondoriozko prezioekin, 39/2006 Legean xedatutakoa aplikatuta.”

Zortzi.- Hamahirugarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hamahirugarren xedapen iragankorra.- Zerga-oinarriaren aldaketa Balio Erantsiaren gaineko Zergan, aurreko urte naturalean 6.010.121,04 euroko eragiketa bolumena gainditzen ez duten enpresaburu edo profesionalentzat, hartzaileak ordaindu ez duenean.

Murritzu gogo den zerga-oinarriari dagokien kreditu eskubidearen subjektu pasibo titularrek, haien eragiketen bolumena, 66. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, aurreko urte naturalean 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan ez bada, zergapeko eragiketak egiteagatik jasanarazitako kuotei dagozkien kreditu kobraezinen titularrak badira, eta Tributu Harmonizazioari buruzko maiatzaren 10eko 4/2010 Legintzako Foru Dekretuak indarra hartu eta zerga sorrarazi zenetik sei hilabete baino gehiago baina urtebete eta hiru hilabete baino gutxiago iragan bada, zerga-oinarria murrizten ahalko dute, indarrean sartu ondoko hiru hilabeteko epean; betiere, 28.4 artikuluan aipatzen diren baldintza guztiak betetzen badira, agindu horren 1. baldintzan aipatutakoa kenduta.

28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera zerga-oinarria murrizten ahal duten subjektu pasiboekin ezin izanen dute aurreko lerroaldean xedatutakoaren babesera jo.”

Bederatzi.- Hamalagarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hamalagarren xedapen iragankorra.- 17.1.12. artikulua testu berriaren ondoriozko araubide iragankorra.

17.1.2. artikulua testu berria irizpide hauen arabera aplikatuko da:

1. Zaharberritzearen kontzeptua, 17.1.12. artikulua B) zatian zehazten den moduan, lehen entregatzat jotzen diren eraikinen edo haien parte-entregaei aplikatuko zaie, baldin 24.1.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2010eko apirilaren 14tik aurrera gertatzen badira, data horren aurretik ordainketa osoko edo partzial aurreraturik izan edo ez.

2. Lehendik zaharberritze obra ez izanik, izaera hori eskuratzen duten obra exekuzioei 37.Bat.3.1. artikuluan ezarritako zerga-tasa aplikatzea bidezkoa izanen da baldin eta obra horiei dagokien zerga, 24.1 artikuluan ezarritako irizpideen arabera, 2010eko apirilaren 24tik aurrera sorrarazten bada, nahiz eta data horren aurretik ordainketa osoko edo partzial aurreraturik jaso. Subjektu pasiboek data horren aurretik kobratu diren ordainketa aurreratuei dagozkien kuota jasanaraziak zuzendu beharko dituzte, kobratu zirenetik lau urte baino gehiago iragan badira ere.

3. 1. zenbakian aipatutako entregak egiten dituzten enpresaburu edo profesionalek kenkarietan sartzen ahalko dituzte zaharberritzean zuzenean erabilitako ondasun eta zerbitzuengatik jasandako edo ordaindutako kuotak. Ondorio horietarako, 2010eko apirilaren 14an sortuko da kuota horiek kenkarietan sartzeko eskubidea. Kuota horiek, nahiz eta parte batean, lehendik kenkarietan sartu badira, enpresaburuek edo profesionalek egin dituzten kenkariak erregularizatu beharko dituzte 2010eko azkeneko likidazioaldiari dagokion aitopen-likidazioan.”

Azken xedapen bakarra.- Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2010eko apirilaren 14tik aurrera izanen ditu ondorioak. Hori guztia, sei, zortzi eta bederatzigarren ataletan xedatutakoa ukatu gabe.

